

uk

219. zenbakia / 2012ko irailaren 24a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urtero argazki zahar eta barriak
Urtero zure proiektuak lau haizetara
Urtero 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK
zure etxean, hamabostero.
Urtero 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



Dacia Lodgy berria Monobolumen handi bat 9.200€-tik aurrera¹

Aukeran 5 edo 7 plazakoa
GPS nabigatzailea inorporatuta
Maletategiaren edukiera: 2.600 dm³



DACIA
GROUPE RENAULT

Dacia España

Dacia ESP

1 URTE² ASEGURUA
DOAN

3 URTEKO³ BERME EDO
100.000 km

www.dacia.es / 902 245 200 | Descúbrelo en tu Concesión Renault-Dacia.

1.) Adierazitako PSP penintsulan eta Balearretan da baliagarria 12/09/30era arte, Lodgy Base 1.6 60 kw (85 ZP) modelo erosteko, zergak barne. Ekipamenduak bertsioaren arabera dira. Argazkiko modelo: Lodgy Laureate TCE 85 kw, 16" ko haguekin; gomendatutako PSP: 14.632 €. 2.) Arrisku orotarako aseguruia doan lehen urtean, 300 €-ko frankiziarekin 30 urtetik gorakoentzat eta 600 €-koarekin 30 urteko edo hortik beherako bezeroentzat. Mapfre aseguru-etxearekin. Eskaintza Lodgy gamako ibilgailu berri bat erosten duten partikular eta autonomoentzat da aplikagarria 12/09/30era arte, RCI Banque-rekin finantzatzuz gero (gutxienez finantzatu beharreko zenbatekoa: 4.000 €). Aseguruia RCI Banque Sucursal en España entitateak oparitua da. 3.) Lehen bi urteetarako bermea kilometraje-mugarik gabea da. Bigarren urtetik aurrera, bi baldintzetako bat gauzatzen denean amaituko da bermea.

Dacia Lodgy: kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2tik 7,1era arte. CO₂ emisioa (gr/km) 109tik 165era bitartekoa.

Dacia recomienda

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo

LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HEL BIDEA: Martikoa 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337

ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga

ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julien Nafarrate,
Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentakaka

TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega

KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Pala,
Armando Llanos, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan,
Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)

FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko parte da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Goitibeherak Urdulizen.
6. FACEGUK. Irailaren 26ko grebari bai ala ez? Zergatik?
7. LEHEN ETA ORAIN. Apeko kaia, XX. mende hasiera.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jose Ramon Basterretxea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxo Folk jaialdia.
28. ARGAZKIA. Basagoiti dorrea, Berango.
30. BERBETAN. Angel Amigo.
34. FOTOGRAFIA. Gonzalo Iribarnegaray eta Ana Egea.
40. SAKONEAN. Plentziako itsaspeko upelategia.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Leioako film laburren lehiaketa.
43. MUSIKA. Sopelako Inkestas Rock jaialdia.
44. LIBURUAK. Literatura lehiaketak.
45. KIROLAK. Sopelako Lasterketa Nudista.
46. ELKARRIZKETA. Mikel Clemente.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Pesto saltsa eta gazta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algorta Bermeon txapeldun, 1984.
54. AITORMENAK. Zuriñe Hidalgo.

Azala: Gonzalo Iribarnegaray eta Ana Egea


www.ukaldizkaria.biz



30 Angel Amigo

Berbetan

Gidoigile, ekoizle, zinegile erreteriarraz aurkeztu barri dituen hiru lanez eta bestelakoez ere jardun dugu.



11 Jose Ramon Basterretxea



54 Zuriñe Hidalgo

Udazkenean ere euskarari heldu!



Algortako Etorbidea 104 -

48991 Algorta - GETXO Tf. 94 460 66 71

- Maila guztiak ordutegi desberdinetan
- HABE 3 / EGA larunbat goizetan

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

HABE diruz lagunduta

Armando Llamosas

> arkeologoa

Ondizko dorrea, ezohiko berri ona

Gustura irakurri dugu hedabideetan erortzearen ondarea berreskuratu dela. Gutxitan agertzen da prentsan horrelakorik, Ondizko dorreari buruzko berriek poztan gaituzte ia-ia ikusi gabe. Zergatik ikusi gabe? Gure testuinguruan administrazioak, edo dena delakoak, ondareari jaramon egitea, berez lorpen itzela da, gero eta gehiago berreskuratzeko eta baloreari jartzeko bada. Kontrakoa da ohikoa. Ondare den eraikina hondakin bihurtzea, botatzea eta eraikin berria egitea normalizat hartu dugu. Ondizko dorreari ere horixe gertatuko zitzaioela uste genuen. Ibiltzeko leku aproposa da, askotan ikusi dugu lehengo hondakina penaz. Penaz eta nekez, ondarea den eraikina botatzea gure historiaren zati bat betiko desagerraraztea besterik ez da-eta.

Horregatik Ondizko dorreak, bere ilunekin, Leioako Udalaren ondarearen interesak erakusten digu, beraz, zoriontzekoa da.

Dakigunez, herriak “dorre” esaten duenean, ez du esan nahi beti eraikin militarra denik. Dorreak prestigio eta gizarte-maila adierazten du, hortaz, gerran ez zik bake garaian ere eraikitzen dira. Euskal Herrian, askotan erlazionatzen dira dorre hauek Bando-gerrarekin, aitzitik, gehienak XVI. mendekoak dira, asko jota, mende oso aberatsa, eta ez bereziki gatazkatsua.

Jakina, adituek datak ez dituzte aldatzen haatik, ondo egin zuen berriro Udalak arkeologia-azterketa egin zuenean, arkeologoek, eraikina aztertu eta idatzitako dokumentazioa ikusi ondoren XVI. mendea baieztatu zuten. Azterketa horiek berreskuratzeko-lanaren oinarri izan behar dute, arkitektura-proiektuekin batera.

Hala eta guztiz ere, ilunak ere egon badaude. Leioako Udalak beste leku batzuk ere berreskuratu ditu. Bere ondarea ez da itzela, Artaza jauregia izan ezik, baina oso esanguratsua herriko nortasuna adierazteko. Orain dela urte batzuk, Mendibile jauregia ere berreskuratu zuen, eraikina ondo geratu zen,



nahiz eta eraikin zaharren kontra itsatsi zuten egitura berria. Beharrezkoa zela esan zen une hartan, eraikinak funtzio berria bete behar baitzuen. Egun, Ondizen ere egitura moderno bat itsatsi du udalak, egurrezko dorrea-edo (militarra?!). Gogorazten digu. Kasu honetan ere beharrezkoa zen? Edo, ondarea izanez, nekazale-jauregiaren itxura mantentzeko? Leioan ondarea zaintzen bide da; agian, gutxi dutenez, saiatzen dira mantentzen; baina modernitza-

tearen sinadura jartzen diote, nahiz eta funtzioa argi ez egon, eta sinadura hori sobera egon.

Kritikak kritika, ez ulertu gaizki, Dorrea polit dago, eraikinaren itxura nahiko kontserbatu da, eraikinaren historia ez dugu gehiegi traizionatu, eta, garrantzitsuenak, Ondizko dorrea beste ehun urte gehiagorako dugu. Helburu xumeak, baina gure testuinguruan ez da makala. Gure ondarearen erdiarekin berbera gertatu balitz... ○

gu geu

Irail on! Eta laster arte, Fredi!

Irail on, UK-kide!

Ongietorriak ikasturte barrira edo urteko azken txanpara! Ene, hasi baino ez dugu egin eta amaieran pentsatzen dagoeneko! Oporren ondorioak izango dira...

Horren harira, uda ostean bat faltan daukagu; baina, ez zaitezte larritu edo tristetu, “momentuko” kontua baino ez dela zin egin digu eta! Fredi Paia “Ohi dan lez” atala egiteari utziko dio denboralditxo batez, indarbarriturik itzultzeko laster... Gure aldetik, eskerrik beroenak emotea eta zorte ona opatzea besterik ezin dugu egin, eta “Ohi dan lez”-en zain lotzen garela esatea... Itzultzeko bidea ezagun duzu, eta honezkero jakin egizu, itxoiten gaudela... Laster arte!

UK-ko lan-taldea



URDULIZEN, 2012KO IRAILAREN 9AN

Ziztu bizian! / Hartu tramankulua eta hasi aldapan behera ahalik eta azkarren. Kontuz bihurgune horretan, erori barik gero! Eta lasai egon, biderik ateraz gero fardoan gainera joango zara, eurek eutsiko dute kolpea. Hamaika herri euskaldunetan legeztatuak diren Urdulizen ere egiten dute goitibehera lasterketa jaietan; irudi hau irailaren 9koa, festetako lehen aste akabukoa. Ohitura handiko eta jarraitzaile askoko kirola da, eta umila. Izan ere, parte-hartzaileek eurek sortzen dituzte goitibeherak, askotan ganbaran topatutako pieza zaharrakaz. Bada, segi aldapan behera, bidea amaitu arte... ziztu bizian! ○ / Argazkia: Asier Menteak

Irailaren 26ko grebari bai ala ez? Zergatik?



Algorta

Adriana de Freitas

> Kimika-ikaslea

Grebaren alde nago, egoera hau salatzeko modu bat da. Ez dakit zer edo zer lortuko den, baina ondo deritzot ahaleginari. Enpresa askotan ondorioak ekar ditzake eta, batzuetan, denok pairatzen ditugu grebaren ondorioak; baina langileen eskubidea da, eta gauzak lortzeko modu bat izan daiteke.



Algorta

Igor Erauskin Muñoz

> Diseinatzaile grafikoa

Egoera eutsiezina da eta zer edo zer egin behar dugu gure eskubideei eusteko, bestela desagertuko dira hitzarmenak, gero eta desberdintasun handiagoak izango dira jendartean. Baina sindikatu guztiek batera joan beharko lukete, guztiok batera egin behar dugu arraun.



Areeta

Sandra Valverde Potes

> Irakaslea

Grebara joan behar dugu: gure eskubidea da eta gobernua jakin behar du zer pentsatzen dugun, nahiz eta gero jaramonik ez egin; behintzat, gure jarreraren barri izan behar du.



Leioa

Leire Dueñas

> Psikologoa

Uste dut zer edo zer egin behar dela, langileok baikara ekonomia mugitzen dugunak, eta politikariek guri eskatzen baitigute ahaleginik handiena. Kokoteraino gaudela esan behar dugu. Oso eroso gaudelakoan nago, eta garaia da oihu egiteko.



Getxo

Begoña Martínez

> Ekonomia-leraria eta ikaslea

Murritzketak handiak dira eta egoera zaila da. Langileok eskubideak dauzkagu eta defenditu behar ditugu. Eragin-korra ez dakit izango den, baina beste aukerarik ez daukagu, greba egin, besterik ez. Egun bateko grebaren alde nago, ez ordea, M-15 taldeagaz; gehiegizkoa da jarrera hori.



Algorta

Jon Intxaurtieta Sagasti

> Irakaslea

Denok babestu behar ditugu gure eskubideak, langile bezala; baina uste dut hainbeste greba egitea orain ez dela eraginkorra. Langabezian nago, baina lana izango banu ez nuke greba egingo: diru asko galtzen ari gara eta ez daukagu horrenbeste diru galtzen ibiltzeko.

[lehen]



RAMÓN BLANCO UZTIZKOA ARGAZKIA

[orain]



ASERMENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / AXPEKO KAIA, XX. MENDE HASIERA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

uribitakora > itsasertzetik paseoan



Galea, 2012ko uztaila

Testua: **Arkaitz Gomez** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Haizea dator ifarraldetik

"Kixote" dabil aldarre onean
"Panza" kentzeko ibiltzen
(e)ta "Dulcinea" asautik dator
pauso goxotan hurbiltzen.
Erraldoi haien besoek dute
aisia aise biribiltzen;
estresa ere soma daiteke
labarretatik amiltzen.

Errotarririk gabeko errotak
inustu ez al da hobe?
Zuhaitz antzuak itzal erkinak
(e)ta argi indarra gordea,
Abran landatu behar zutela
ustez bentiladorea!
Sargoria (e)ta lanbroa usatzen
ez du laguntzen ordea.

Golf zelaitik jaurtikitako
bolak hor galtzen direnez
Galean dago(e)n bide galdu hau
da "galbide" ezizenez.
Paseorako kaballerua
oso jatorra naizenez,
hartu nazazu paseorako
(e)ta solorako inoiz ez!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



INPRIMATEGIA GARA!

1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel

229€

BEZ kanpo

Eskaintza berria

5 BLOK

Debalde



GLOBAL PRINTERS



www.cianoplan.es

Eskaintza uztailaren 15ean bukatuko da



Info+: www.egizu.org/literatura/argihizkiak

erakusketa > argIhizkiak ikusgai eta irakurgai

Daborduko Laura Mintegi, Unai Elo-riaga, Irati Elorrieta eta Iñaki Frieria idazle getxotarrek osatutako epaimahaiak emon du bere epaia, aukeratu ditu testu labur eta sms-rik onenak. Orain, Egizuk, Getxophotok, Getxoko Udalak eta UK-k antolatu dugun I. Getxoko Argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketako lan irabazleak eta dagozkien argazkia-kaz osatutako erakusketa prestatu dugu;

urriaren 9tik 31ra ikusgai egongo dena Torrene aretoan (Algorta); astelehenetan itxita, astegunetan 11:00-13:00 eta 17:00-20:00, zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-21:00, jaiegunetan 12:00-14:00). Gainera, ohiko webgunean ere ikus-irakurri ahalko da laster. Inaugurazioa hilaren 9an bertan egingo da, saridun eta partehartzaile danakaz; esan barik doa, zu ere gonbidatuta zaudela! ○

bertsolaritza > bizkaiko txapelketa

Ez dira gitxi Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartuko duten uribekostarrak: Arrate Illaro, Peru Vidal, Imanol Uria, Josu Landeta, Itxaso Paia, Ekaitz Larrazabal, Inazio Vidal, Fredi Paia eta Jone Uria (finalaurretan sartuko da). Kanporaketak urriko domeka danetan eta azaroko lehenengoan jokatu dira; Berritxun (urriak 7), besteak beste, Arrate Illaro, Imanol Uria eta Inazio Vidal lehia-

tuko dira, Balmasedan (urriak 14) Itxaso Paia, Mungian (urriak 21) Fredi Paia eta Peru Vidal, Sopelan (urriak 28) Ekaitz Larrazabal "Katxo", eta Zornotzan (azaroak 4) Josu Landeta. Horietan lehen postuan eta puntuz sailkatuko direnek zain izango dituzte Arkaitz Estiballes, Etxahun Lekue, Peio Ormazabal, Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Jone Uria, Beñat Ugartetxea eta Eneko Abasolo. ○



www.bizkaikotxapelketa.biz



Info+: www.auzolan.info

irail akabuan > auzolan topaketak

Altsasun izango dira hilaren azken aste akabuan, 28tik 30era, II. Auzolan Topaketak. Jaso, Hausnartu eta Sortu, hurrenez hurren, bariku (arrastiz), zapatu eta domeka, egun bakoitzari ipini dioten izenburuaren azpian hamaika ekimen antolatu dute. Elikadura, Energia, Osasuna, Hezkuntza, Etxebizitza eta Hiririk Herrira gai nagusiak landuko dira, eta tokian tokiko garapen esperientziak

ezagutzeko aukera egongo da. Azpiegituren antolakuntza ere prest dute: 400 lagunetzako batzar lekuak, jan-edanak eta lo egiteko lekua prestatzen dabil-tza; "elikadura hornikuntza kosteak ordaintzeko otordu bakoitzarengatik 5 euroko ekarpena" egitea estimatu dute; ha-lere, bestelako aukerarik ere bada. ○

Izena emoteko:

www.auzolan.info/topaketak-altsasu

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaia...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Euskara estiloa?

MATRIKULA EPEA
IRAILEAN ZABALIK

MATRÍCULA ABIERTA
EN SEPTIEMBRE

**EMAN IZENA GETXOKO EUSKALTEGIETAN!
¡MATRICÚLATE EN LOS EUSKALTEGIS DE GETXO!**



Sartu www.getxo.net/euskara webgunean eta euskara ikasteko Getxoko Udalak eskaintzen dizkizun diru-laguntzen berri izango duzu! ¡Entra en www.getxo.net/euskara y encuentra todas las ayudas que el Ayuntamiento te ofrece para aprender euskera!



COGORATU! / RECUERDA:
www.getxo.net/euskara

[erretratu]



"Gure artekoa ez da txapelketa lehiakorra, ez dugu orain irabazi gura 25 urtegaz irabazi ez genduna"

J. R. Basterretxea **"Batu"** > Beteranoak bogan!

Euskal Herrian beste hainbat ohitura legez, desafio baten ondorioz sortu zuten orain bederatzi urte beteranoen arteko lehen estropada. Algorta eta Arkote taldeak izan ziren protagonistak, baina Jose Ramon Basterretxea *"Batu"*-rentzat, irabazlea nor izan zen ez du askorik inporta: *"Gure artekoa ez da txapelketa lehiakorra, ez dugu orain irabazi gura 25 urtegaz irabazi ez genduna"*. Basterretxea algortar peto-petoa da, betikoa, bertako arraun taldean ibilitakoa: *"Eta harro gainera! Nire karnetea 'Algorta' jartzen du!"*. Arraunaren zale amorratua, 60 urtegaz bogan jarraitzen du, Getxo Arrauneko beteranoen taldean: *"Niretzat garrantzitsuen arraunagaz gozatzea da. Bandera bat irabazten badugu, hobeto. Bestela... estropadaren ostean beti izango dugu bazkari eder bat zain! Hori ezinbestekoa da!"*. Orain bost urte, Arraunlari Beteranoen Elkarteak sortzen lagundu zuen, Jose Antonio Zubizarreta *'Zubi'*-gaz batera. Hainbat talde dabilta bertan jo eta su, Getxo Arraun tartearen, eta Algortako Portu Zaharrean estropada antolatzen dute jaietan: *"Bederatzi bider antolatu dugu Portu Zaharreko estropada, horietako bost Ligaren barruan: 'Beteranoen Kontxa' legez ezagutzen dugu"*. Euren traineraren batez besteko adina 53 urtekoa da, eta asteen birritan entrenatzen dute. Bada, sasoiaren daude beteranoak, arraunean lotu barik: *"Gogorra da, baina gure artean dugun giro hutsagatik merezi du"*. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Kultura proiektua 2012-2016

Udalak prozesua abiatu du, bere **kultura-ekintzaren eredua barrikusteko** eta eguneratzeko; **bi fasetan** garatuko da eta **urte akabura arte luzatuko** dira gauzatzerako doazen **lanok**

Getxo Kultura 2012-2016

Proiektua izenagaz prozesua abiatu du Udalak, bere kultura-ekintza eredua eguneratzeko eta barrikusteko. Urte akabura arte luzatuko da eta fase bitan banatuko da: lehenean, egoeraren diagnostikoa gauzatuko dute, eta bigarren fasean zehaztuko dute kontzeptualki proiektua bera zer izango den.

Getxoko Kultur Etxearen eredua eguneratzera bideratuta daude garatu beharreko lanok, udalerriko kultura-ekintzaren ardatz nagusi gisa; horrela jakinarazi du Udalak. Dioenez, Getxo Kultura 2012-2016 Proiektuaren helburua da Kultur Etxearen funtzionamenduaren azterketa kritikoa egitea, tokiko kultur prozesuei buruzko guztia xehetasunez ezagutzea, ondorioak ateratzea, eta konponbide baliagarriak proposatzea, kulturak Getxon duen eragin estrategikoa, soziala eta ekonomikoa hobetzen laguntzeko.

Gauzatu beharreko lanen ekarpen barrien artean, bat da kultur jarduerak Getxoko BPGn (Barne Produktu Gordinean) izandako eragin ekonomikoaren kuantifikazioa egitea, epe ertainera izango duen bilakaeraren iragarpenagaz batera; hau da, 2012-2016 aldirako iragarpena.

Prozesua, gainera, parte-hartzailea izango dela iragarri du Imanol Landa alkateak: “Fase eta une desberdinetan, udalerriko kultur eragileen ekarpenak aintzat hartuko dira, besteak beste: jai-batzorde, kultur arloko enpresa, prestaketa-gune, musika-



Getxoko Blues jaialdia

talde, antzerki-talde, dantza-talde eta abarregaz, sektore sozio-kulturalaren elkartemugimenduetatik eta herritarrekaz”.

Enpresa batek garatuko du prozesua. Kultiba enpresa bizkaitarrari, izan ere, 47.000 eurotan esleitu dizkio lanok. Eta

“Lehenengo, diagnostikoa egingo dute, eta horren ostean, kontzeptualki definituko dute proiektua”

fase bitan gauzatuko ditu. Lehenengo fasea da irailean abiatu dutena, lan-saio batez. Asmoa zen bertan parte hartzea Getxoko hainbat kultur eragilek. Lan-saioan egoeraren diagnostikoa egiten haslekoak ziren UK-ko zenbaki hau egin bitartean, barne zein kanpo-mailan, eskaria, eskaintza, joerak, ekoizpena eta

abar aztertuz.

Behin diagnostikoa osatuta, bigarren faseari ekingo diote eta azaroaren amaiera arte iraungo du. Fase honetan zehaztuko dute “kontzeptualki” Getxo Kultura 2012-2016 Proiektua zer izango den, “kulturraren sustapenean ildo eta xede estrategikoak finkatuz eta lehenetsiz”. Diotenez, proiektuaren esparru eragilea ere finkatuko dute, “abiatu beharreko ekintza-planak zehaztuz, egituratuz eta diseinatuz”.

Bilduk, bere aldetik, oharrarazi du “Kultur Etxeko aurrekontuagaz hainbat kultur ekimen antolatzen dela eta hori aztertu behar” dela, baina era berean, “eragile herritarrek sortu emaitza kulturala ere aztertu beharko litzatekeela”. ○

Info+: www.getxo.net

Iparra galdu gabe!

Jardunaldiak, urriaren 4tik azaroaren 4ra



Info+: www.getxo.net

Beste behin ere, Ipar Euskal Herriari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Udalak, urriaren 4tik azaroaren 4ra, Euskal Kultur Erakundeagaz batera: *Iparra Galdu Gabe!* jardunaldiak.

Aurtengo programak HITZA du ardatz eta hainbat ekintza garatuko dituzte. Berbarako, HITZ ENEA argazki erakusketa, Iparraldeko eta Getxoko etxeen izenakaz bidaiatxo egitea proposatuko duena; Algortako Geltokia plazan ikus ahaliko da urriaren 7ra arte eta Areetakoan hilaren 11tik 14ra. Urriaren 5ean, gainera, bertso-saioa egingo dute aipatu erakusketa ardatz, eta ALBERen eskutik: Algortako plaza berean izango da, 20:00etan.

Bestalde, urriaren 7an, *Oroitzen naiz* filma aurkeztuko dute Areetako Musika

Eskolan, 18:00etan. Hilaren 17an, hitzaldi umoretsua eskainiko dute Kike Amonarrizek eta Pantzo Hirigaraik, Algortako Torrene erakustaretoan eta doan. Biharamunean, barriz, toki eta ordu berean, *Emak bakia* filma estreinatuko dute.

Urriaren 23an, literatur-mintzaldia izango da Ur Apalategi idazleagaz Algortako Aldai Patronatuan, 20:00etan; Egizuk antolatuko du. Eta azkenik, azaroaren 4an, umeentzako antzerkia izango da Algortako Villamonte Kultur Etxean, *Lodrikoko* antzezlan, 11:30ean eta 13:00etan, Sendi-ren eskutik. Ekintza guztiak doakoak izango dira, baina antzerkia ikusteko izena emon beharko da: www.blogari.net/send, 685 732 963 edota sendigetxo@yahoo.com. ○

EUSKALTEGIETAN MATRIKULA ZAITEZ!

Oraindino badaukazu aukera herriko euskaltegiaren izena emoteko 2012-13 ikasturtean euskara ikasteko; irail osoan egin dezakezu. Lau euskaltegi daukazu: Udal Euskaltegia (Lope de Vega, 12), Lauaxeta (Iparbide, 6), Jose Antonio Agirre (Algortako etorbidea, 104) eta Bai & By akademia (Kale Nagusia, 2). Gainera, Egizuk Berbalagun egitasmoa abiatuko du barriro; izena emoteko bideak: 619 935 541, egizugetxo@gmail.com eta www.egizu.org.

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO HIRIA

Irailean jaso zuen Getxok Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria egiaztapena, Udaletik jakinarazi dutenez, "*Bidezko Merkataritza eta Merkataritza Arduratsuaren alde burututako ekintzak aztertu ondoren*". Gaineratu dutenez, "*Udalak Bidezko Merkataritzako produktuak erosi ditu eta, Osoko Bilkuran, Bidezko Merkataritzaren aldeko agiri instituzionala adostu du; zortzi dendak eta ostalaritzako lau establezimenduk mota horretako produktuak dituzte salgai eta udalerriko hainbat enpresaren eta elkarteren konpromisoa lortu du; era berean, lan-talde bat osatu da eta hark sentsibilizazio ekintzak prestatu ditu*".

MASKULINITATEA BIRPENTSATUZ

Getxoko Berdintasun Zerbitzuak Maskulinitatea birpentsatuz tailerra antolatu du, iazko moduan. Mikel Otxotorenak dinamizatuko du, On:Giz Elkartekoak. Urriaren 8tik azaroaren 12ra bitartean garatuko da astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara, Jabekuntza Eskolan (Martikoen 16, 1. solairua). Izena emon daiteke urriaren 3ra arte Getxoko Udaleko webgunean, Berdintasun Zerbitzuan.

Info+: 944 660 136 edota berdintasuna@getxo.net



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

Javier Campo Esteban > *La ermita del Puerto Viejo* liburuararen idazlea

“Datuok garrantzitsuak izango dira Algortako San Nikolas parrokiaren historia ezagutzeko”



Liburua eskatzeko: ermita.sannicolas@yahoo.es

Portu Zaharreko basiliza, San Nikolas parrokia eta bere organoak: zer zerikusi daukate? Javier Campo Estebanek kontatu du hiruren historia *La ermita del Puerto Viejo. San Nicolas de Bari de Algorta y su organo* liburuan. Algortako historiaren pasarte bat ezagutzeko parada ederra eskaintzen du, DVD-ak lagunduta. Arbasoen historia ezagutzeko ere balio du lanak, euren ahaleginari esker eraiki baitzuten parrokia. Liburua eskuratzeko ondoko helbidera igorri mezua, eta 15 euroren truke eskatu: ermita.sannicolas@yahoo.es. Gozatu gure historiagaz!

—Algortako historia bat kontatu duzu.

—Lau zati dauzka liburuak. Lehenengoan, Portu Zaharreko basilizaren historia kontatu dut: idatzien arabera, 1669tik existitu zen. Bigarren zatian, kontatu dut zelako gorabeherak izan zituzten 1854an Algortako 1.700 bizilagunek, zertarako eta eliza barri bat egiteko; 1863an lortu zuten eraikitzea Bariko San Nikolasen parrokia. Hirugarren zatian, azaldu dut parrokiako lehengo organoa zelakoa zen, bere ezaugarriak; gaur egun beste organo bat dago. Eta laugarren zatian, azken 150

urteotan parrokian jo duten organisten barri emon dut, eta horietako bati gertatu historia oso interesgarri bat kontatu dut.

—Zer zerikusi daukate San Nikolas elizak eta Portu Zaharreko basilizak?

—Bata bestearen ondorio da. Basiliza txiki lotu zen hainbeste eliztar hartzeko. Izan ere, garai hartan Bilbo eta inguruko gero eta herritar gehiago zetorren gure uretara asteburuetan, klima aprobetxatu guran.

—Zergatik hitz egiten duzu parrokiako organoari buruz? Zer berezitasun dauka?

—Gure parrokiako organoa altxorra da.

Kontuan eduki behar da, 104 urteren buruan, nabarmentzeko moduko soinua daukala. Urteen joanagatik, adinaren ajeak ere badauzka, noski; baina inork ez zukeen aurreikusiko organo pneumatiko-tubular batek hainbeste iraungo zuenik, J. Gutschenritter egileak ere ez.

«Kontatu dut gure arbasoak nola izan ziren herriko historiaren parte»

—Herriko pertsonaiak eta istorioak ere jaso dituzu, zergatik?

—Herriak ez lirateke herri, osatzen dituzten pertsonak barik. Gure arbasoen izen asko jaso ditut liburuan, baina ez dut kontatu euren bizitza, baizik eta zein modutan izan ziren herriko historiaren parte. Kasu honetan, gainera, ondo definitutako izaeragaz: algortarra.

—Nolatan animatu zara historia hau jasotzera eta idaztera? Zer asmogaz?

—2008an ospatu zen organoaren mendeurrena, kontzertu batez: Daniel Oyarzabal organista ospetsuak jo eta Biotz Alai abesbatzak kantatu zuen, parrokian ondo errotutako abesbatzak; nik 14 urtez abestu nuen bertan. Orduan otu zitzaidan liburua idaztea. Organoari buruz ikertzen hasi eta datuak agertu ziren, bai egungo organoari buruz, bai aurrekoari buruz; Harmonium bat da eta parrokiako txoko batean dago oraindino. Bizkaiko Elizbarrutiko Artxibora jo nuen eta bertan topatu nuen historia hau; irakurri dutenek animatu naute kaleratzera. Hutsune bat bete gura dut. Getxoko historia kontatu izan dute aurretik ere, baina orokortasunean. Uste dut ezagutzera emon ditudan datuak oso garrantzitsuak izango direla gure herriko historiaren parte hau hobeto ezagutzeko. ○

Identibuzz ekimena

Urrian garatuko da Immigrazio Zerbitzuaren ekimena, **kultur aniztasuna islatu** asmoz



Ekimenaren aurkezpena, Algortako Kultur Etxean. ARGAZKIA: Mikel Agirregabiria

Getxoko kultur aniztasuna islatzeko helburua dauka Identibuzz ekimenak, Immigrazio Zerbitzuak jakinarazi duenez. Ikus-entzunezko sormen-esperientzia parte-hartzailea izango da, urrian garatuko da, eta udalerriko zein atzerriko lagunek eta taldeek parte hartu ahalko dute: *“Kultur arteko harremanak sustatu gura ditu eta espazioak sortu jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonen arteko bizikidetzaren alde egiteko, kontakizun partekatu bat eraikitzeko xedez, udalerrian bizi diren hainbat identitatearen eta identitate anitzen inguruan”*.

Tailer bategaz abiatuko da Identibuzz

eta parte-hartzaileek *“irudiak grabatzeko eskuko telefonoak erabiltzen ikasiko dute”*. Ondoren, esperientziak eta testigantzak grabatuko dituzte Getxon bertan, hamar minutuko dokumentala lantze aldera. Tailerra eta grabazioak jarraian izango diren asteburu bitan egingo dira.

Baina ekimena proiektu zabalago baten baitan kokatzen da: Identibuzz Euskadi proiektua. Hainbat udalerritako esperientziak bildu eta mapa osatuko dute, *“biztanleriaren artean ezagutza eta bizikidetzaren sustatzeko”*. Parte hartu gura baduzu izen-emotea zabalik dago. ○

Info+: www.getxo.net/identibuzz

ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA EUSKARAZ

Bizarra Lepoan Elkartek Astialdiko Begirale ikastaroa antolatu du, Urtxintxa Eskolagaz batera; urritik maiatzera iraungo du eta Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulazio ofiziala izango da. Guztira 320 ordu izango dira: 200 teoriko eta 120 praktikoa, 2 urtetan egiteko. Parte har dezakete 18 urtetik gorakoek eta praktikak egingo dira Getxoko astialdi talderen batean; 155 euro ordaindu beharko da, baina Udalak laguntzak eskainiko dizkie herriarrei edota herriko astialdi taldeetako partaideei. Irailaren 28ra arte emon daiteke izena Bizarra Lepoan Elkartean bulegoan (Martikoena, 16), 09:30etik 14:00etara.

Info+: www.bizarralepoan.org,
info@bizarralepoan.org eta 944 910 387

NAFARROAKO ERRESUMARI BURUZKO HITZALDIA, ALGORTAN

Nafarroa, konkistatik independentziara, 1512-2012 izenburupean hitzaldia antolatu du ikasketa Bolibartiarren Elkartek, Getxoko Udalaren laguntzagaz, urriaren 3rako. Patxi Abasolok eta Tomas Urzainquik parte hartuko dute eta Itxaso Paia izango da moderatzailea. Algortako Villamonte Kultur Etxean izango da ekitaldia eta 19:00etan hasiko da.

GAZTEENTZAKO HAMAIA LANTEGI

Hainbat gai landuko dute Udalak gazteentzako antolatu dituen tailerretan, urritik otsailera, eta daborduko izena emon daiteke. Irratigintza, sukaldaritza, dantza, makillajea eta yoga landuko dituzte 11 eta 17 urte bitarteko gazteek. Bideo-sormen tailerra, barriz, 18 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta dago; guztiak izango dira doan. Informazioa eskatu eta izena emoteko hainbat bide dago: Gazte Bulegoan (bertan, 944 660 353 edo gaztebulegoa@getxo.net) eta Udaleko webgunean (www.getxo.net).

Info+: www.getxo.net eta
gaztebulegoa@getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Peru Vidal Gurrutxaga > Uribe Butroeko Bertsolari Txapelduna

“Bertsolari asko dago Bizkaiko finalerako mailagaz: lehia bizia izango da, polito egongo da hasieratik”

Txapela lortu zuen Peru Vidal Gurrutxaga leioaztarak Uribe Butroeko Bertsolari Txapelketan eta, ondorioz, zuzenean sailkatu da Bizkaiko Txapelketan parte hartzeko. Urrian abiatuko da azken hori eta, Perugaz batera, Leioako beste bertsolari batek ere parte hartuko du: Inazio anaiak, hain zuzen ere.


—Leioaztarra, baina Uribe Butroeko txapeldun, nolatan?

—Lehen Ipar Uribeko txapelketaren barruan sartzen ziren Uribe Kosta, Larrabetzu eta Mungialdea. Baina Uribe Kosta 30 bat bertsolarik parte hartzen genuen, eta beste eskualdeen artean sei batek bakarrik. Horregatik erabaki zuten bi eskualdetan banatzea eta Leioa Uribe Butroen sartzea. Horrela, kanporaketa bi egiten dira eskualde bakoitzean.

—Eta irabazi duzu, lehenengoz?

—Lehen aldia da zer edo zer irabazten dudana eta shock-a izan zen: Etxahun Lekue etorri zen txapela ipintzera eta urduritu nintzen, ordura arte ez bezala. Ez nuen espero irabaztea, ni saio on bat egitera nindoan, oso lasai; baina edonork irabaz zezakeen, aukera zabala zegoen.

—Eta orain, Bizkaiko Txapelketan, zein



Info+: www.bizkaikotxapelketa.com

asmogaz parte hartuko duzu?

—Laugarrena izango da. Hasieran emozionatu eta prestatzen hasteko gogoa sartu zitzaidan, inoiz ez baitut prestaketa zehatzik egin txapelketetarako; baina denboraz larri ibili naiz udan eta irailean hasi naiz. Nire helburua da saio on bat egitea, ez hainbeste finalerdian sartzea; eta lortuz gero, primeran.

—Azken urteotan lehia biziagoa izan da, bertsolari barriak sartu dira-eta finalean;

zelan dator aurten txapelketa?

—Gazteak indartsu datoz, eta Iturriaga eta Elortza ez ziren egon aurrekoan; aurten Elortza bai. Baina bertsolari asko dago finalerako mailagaz, eta auskalo zer gertatuko den. Gainera, Euskal Herriko Txapelketarako sailkatuko dira bertsolariak aurten. Beraz, kaña sartuko dute, lehia bizia izango da, morboa egongo da eta beti dago sorpresaren bat; polito egongo da hasierako saioetatik. ○



Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kosta

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Udal Euskaltegiak 30 urte

Aurtengo **eskaintza**: maila guztiak, **on-line** ikastaroak eta **tutoretza programa berezia**



Iparragirre etorbideko 78.ean dago Mastitxu Udal Euskaltegia

1982an zabaldu zuten Mastitxu Udal Euskaltegia. Hasieran ikasle gitxi zegoen, baina apurka-apurka, kopuru hura biderkatu zen. Gaur, 30 urte berandua-go, eskaintza eta ikasteko aukerak zabaldura dira, eta daborduko izena emon deza-kezu ikasturte barrirako.

Euskara maila guztiak eskaintzen dituzte Mastitxun: 1. mailatik 4.era (Bizkaiko udal euskaltegien artean beste bik bakarrik eskaintzen dute 4. maila: Getxok eta Gernikak). Gainera, jendar-tea aldatzeagaz batera, euskaltegiaren eskaintza ere aldatuz joan da urteotan. Berbarako, beren-beregi sortutako ikas-taroak dauzkate, eskaeraren arabera sor-tutakoak: batxilergoko ikasleentzat,

gurasoentzat, unibertsitateko langileen-tzat edota eskoletako irakasleentzat. Horiekaz batera, teknologia barriei ere egokitu zaie euskaltegia: on-line ikastaro-ak eskaintzen dituzte eta, aurrez aurreko ikastaroetan ere, teknologia barriak era-biltzen dituzte.

Baina bestelako berezitasunik ere badauka Mastitxuk: tutoretza-programa berezia; irakasleek hiru urtez jaso dute formazioa tutoretza klase barruan inte-gratu eta sistematizatzeke.

Ikastaroetan izena emoteko euskalte-gira hurbildu (Iparragirre etorbidea, 78) edo 944 640 002 telefonora dei dezake-zu. Informazio zehatzagoa ere badaukazu webgunean: www.euskaltegileioa.com. ○

ARGAZKI ETA FILM LABUR LEHIAKETAK

Urriaren 19ra arte aurkez daitezke lanak Leioako Film Laburren XIX. eta Argazkien XXVI. lehiaketetarako. Lanak posta ziurtatu bidez bidal daitezke, edo Kultur Leioara eroan zuzenean (Jose Ramon Aketxe plaza, 11). Lanen gai, ezaugarri, aurkezpen, sari eta abarrei buruzko informazio gehiago topatuko duzu www.leioa.net eta www.kulturleioa.net guneetan.

Info+: www.leioa.net eta www.kulturleioa.net

POP-ROCK: IRABAZLEAK ETA LEHIAKETA BARRIA

Ondizen jokatu ziren Leioako Pop-Rock lehiaketaren finalak, irailaren lehen asteburuan. Zehazki, barikuan izan zen Pop-Rock modalitatearen finala eta Astigarragako Krell taldeak irabazi zuen. Metal modalitatean, barriz, zapatuan, Madrilgo talde batek irabazi zuen: We All Fall taldeak. Azken horrek irabazi zuen lehiaketa orokorra ere. Beraz, zorionak bie!

'BOSTEKO' ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN URRIAN

'Bosteko 12' erakusketa ibiltaria Kultur Leioan ikusi ahal da urriaren 4tik azaroaren 4ra. Aurten hiru artistaren lanak jasotzen ditu: Lourdes Vicente, Juan Sagastizabal eta Iñaki Bilbao; hiru ikuspuntu islatzen dira lanotan, hiru modu plastiko erabat ezberdinetan. Getxon, Basaurin eta Arrigorriagan ere erakutsiko dute 'Bosteko 12'.

TXOPOETAKO JAIK, URTEKO AZKENAK

Mikel Deunaren jaiak ospatuko dituzte Txopoetan irailaren azken asteburuan, barikua 28tik domeka 30era. Urtero lege, umeentzako jarduerak, bazkaria, kontzertuak, erromeriakaz gozatuko dute txopoetarrek, giro apartak bustita. Oso ondo pasa, urteko azkenak dira-eta!



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Vanessa Rico Marin > Ludotekako begiralea

“Umeak eta nagusiak datoz ludotekara: adinaren arabera ekintzak egiten ditugu”

Orain dela gitxi zabaldu zituzten Erandioko ludoteka biak, Astrabuduan bata, Altzagan bestea. Irailean ekin diote ikasturte barriari eta ume zein nagusientzako eskaintza daukate. Vanessa Rico Marin begiraleagaz berba egin dugu.

—Ikasturte barriari ekin diozue ludoteka bietan, ezta?

—Irailaren 10ean hasi ginen barriro. Erandion ludoteka bi daukagu: Astrabuduko Mendiguren plazan bata eta Altzagako Desanexio kalean bestea. Astrabudukoa 2011ko martxoan zabaldu genuen eta Erandiokoa aurten: beraz, nahiko barriak dira biak.

—Zer asmo edo helburu daukazue?

—Asmoa da euskara sustatzea. Horregatik, umeak egiten ditugun ekintza guztiak euskaraz dira. Egiten ditugu eskulanak, tailerrak, birziklatzeko ekimenak, eta sormena edota psikomotrizitatea lantzeko ekintzak, Heziketa Sortzailearen bitartez. Arrastian zabaltzen ditugu ludotekak umeentzat, aste barruan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 14:00etara. Ordu beteko txandak antolatzen ditugu eta 3 eta 10 urte bitarteko umeek parte har dezakete. Danek alkarregaz garatzen dituzte ekimenak, adin



Ludotekan izena emateko: 944 175 616

guztietakoek batera: ekintzak apur bat moldatzen ditugu guztiak batera egon ahal izateko. Sei begirale gaude eurakaz.

—Baina nagusientzako eskaintza ere badaukazue, ezta?

—Nagusiak goizez datoz aste barruan, 60 urtetik gorakoak. Eurentzako ekintzak antolatzen ditugu: dantzak, gimnasia, memoria lantzeko tailerrak, erlazioa, barreterapia, txangoak, e.a. Gainera, jendea animatuz gero, antzerki bat ere egingo dugu. Nagusiak, oraingoz, 11:00-

etatik 13:00etara datoz, baina gero eta lagun gehiago hurbiltzen da eta, agian, ordutegia zabalduko dugu. Izan ere, nagusiak umeak ez bezala, egunero bi orduz egon daitezke ludotekan.

—Nora jo behar da izena emoteko?

—Interesa dutenek telefonoz deitu edo zuzenean ludotekara hurbil daitezke izena emateko: Astrabuduko ludotekako telefonoa da 946 552 339, eta Altzagakoa 688 697 527. Bulegora deitzea ere badago, 944 175 616 zenbakira. ○



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf.: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatzeko sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Apurka, euskara ahoan

Euskaltegian **izen-emotea**, diru-laguntzak eta **Barraskiloa** proiektua zein **hitzaldiak**



Barraskiloa proiektua eta hitzaldiei buruzko informazio gehiago: www.erandio.net

Ikasturte barria hasi da eta badago nobedaderik. Batetik, daborduko matrikula egin daiteke Udal Euskaltegian (Astrabuduan Atxutegi kaleko 6.ean eta Altzagan Desanexio kaleko 4.ean). Harremanetan ipintzeko dei egizu 944 676 075 zenbakira edo mezua bidali erandio.eusk@euskalnet.net helbidera.

Horregaz batera, esatea dago Udalak diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu duela “euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekintzetarako”: urriaren 11 arte eska daitezke. Informazio guztia daukazu interneten, ondoko helbidean: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com.

Bestalde, euskara sustatzeko ekimen bat abiatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak, familia barruko transmisioan laguntzeko: Barraskiloa proiektua. Asmoa da “euskarak nekez moldatzen diren gurasoei laguntza ematea seme-alabak euskaraz berba egiten has daitezen”, eta horretarako, materiala helarazi dute 2009 eta 2011 bitartean jaiotako umeen etxetara.

Baina hori ez da gurasoei zuzendutako ekimen bakarra, izan ere, hitzaldi zikloa antolatu dute urrirako hainbat ikastetxetan: Paula Kasares, Julian Iantzi eta Iñaki Eizmendik emongo dituzte. Izena emon behar da Euskara Zerbitzuan. ○

KIROL-JARDUERAK ITSASADARREAN

Oraindino azken aukera daukazu itsasadarrean paddlesurf egiteko edo kanoaz ibiltzeko, datozen asteburuetan. Paddlesurf egiteko Astrabudura jo behar duzu, itsasadarrera, gasolindegiairean parera. Iraileko azken eta urriko lehen aste akabuetan egin dezakezu, zapatu eta domekan, 10:00etatik 14:00etara. Antolatzaileak harremanetan ipin zaitezke 645 536 958 zenbakira deituz edo centrodeportivokns@hotmail.com helbidera mezua igorri. Bestalde, Alzagako ontziralekutik urtenda, kanoakaz ibiltzeko aukera ere izango duzu iraileko azken aste akabuan, han ere zapatu eta domekan, eta ordutegi berean. Erandiokoentzat doako zerbitzua da eta kanpokoek ordaindu behar dute: 1eko piragua 10 euro, 2koa 15 euro. Harremanetarako: 695 268 712 edo rkabentura@gmail.com. Ondo pasa!

ANTZERKI IKASTAROAK LUTXANAN, TIRANTE-GAZ

Lutxanako Tirante Plataformako lagunek antzerki-ikastaroak antolatu dituzte, beste behin ere. Bi maila eskainiko dute: hastapena eta maila ertaina. Lehen astelehenetan izango da eta bigarrena martitzenetan, biak 19:00etatik 21:00etara. Eva Guerrerok gidatuko ditu eta hileroko 30 euro ordaindu behar da parte hartzeko.

Izena emoteko: 649 110 226 edo evaguerrerrico@gmail.com

GAZTE BULEGOKO IKASTARO BARRIAK

Gazte Informazio Bulegoak ezagutzera emon du iraila eta abendua bitarteko ikastaroen eskaintza. Betiko legez, eskulanak, sukaldaritza edota dantzagaz lotuta egongo dira, besteren artean. Izena emoteko eskabide orria bete eta udaletxera eroan behar da. Orria eska dezakezu Gazte Informazio Bulegoan bertan. Informazio gehiago eskuratzeko telefonoz deitu edo mezua bidali: 946 025 891 eta gazteinfo@erandioko-udala.net.

ikasi
eta landu

**euskara
bizia**

Uribe Kostako AEK

Euskalduntze ikastaroak maila guztiak
3. maila-c1 / 4. maila-c2

Autoikaskuntza

aek

Gazte ikasteko
pour se comprendre

eman izena
www.aek.org

944 304 734
lauaxeta@aec.org

KIROLEAN EUSKARA ERABILTZEKO KANPAINA

Kanpaina abiatu barri du Sopelako Udalak, herriko kirol jardueretan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Udal euskaltegiak entrenatzaile eta begiraleentzako ikastaroak eskainiko ditu beren-beregi. Eskolek 120 orduko iraupena izango dute (asteaz hiru ordu), eta bertan begiraleek entrenamenduak euskaraz emateko bitartekoak ikasiko dituzte. Eman izena irailaren 27a baino lehen!

ADELA ANDIKOETXEA IRABAZLE EUSKAL JAIAN

Irailaren 8an ospatu zen aurtengo Sopelako Euskal Jaia, eta lagun ugari hurreratu zen baserriarren postuetara. Ortuariari sari nagusia Adela Andikoetxea, eskarmentu handiko urduliztarrak eroan zuen. Bestalde, sopeloztar posturik onenaren saria Zuazuak irabazi zuen. Sukalki txapelketan Marieli izan zen txapelduna. Zorionak denoi!

SAHARARI BURUZKO DOKUMENTALA IKUSGAI

Urriaren 5ean, barikua, *El problema* dokumentala eskainiko dute Kurtzio Kultur Etxean, 19:30ean. Jordi Ferrer eta Pablo Vidal dira filmaren zuzendariak, eta Saharak bizi duen egoera politikoa eta ekonomikoa eta gatazkaren historia kontatzen du. Dokumentalak nazioarteko hainbat sari jaso ditu, Donostiako Giza Eskubideen Zinema Jaialdiaren sari nagusia, kasu.

ITZARTU ELKARTEAREN IKASTAROAK, PREST

Urtero legez, Itzartu emakumeen elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu 2012-2013 ikasturterako, barritasunak gainera: yoga, aerobik, saltsa, psikologia, memoria lantzeko ikastaroa e.a. Emakume zein gizonezkoek eman dezakete izena, itzartu@hotmail.com e-postan edo 946 765 595 telefonoan.

Eskaintza zabala **Kurtzio** 2012-2013 ikasturterako hamaika ikastaro prestatu du Kultur Etxeak; **emon izena!**



Bisuteria, antzerkia eta argazkilaritza tailerrak eskainiko dituzte, besteak beste.

Aspertzeko asti handirik ez duzu izango ikasturte honetan, Kurtzio Kultur Etxeak prestatu duen ikastaro eskaintzari esker. Gustu eta adin guztietarako eskaintza izango dugu, euskaraz zein gazteleraz, eta ikastaro gehienak barritzaileak izango dira.

Horren adibide da, berbarako, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako masaje tailerra. Guraso eta umeen artean lotura berezia sortzea da ikastaroaren helburua. Bisuteria tailerrean, barriz, bitxiak egiten irakatsiko dute, hainbat teknika eta material erabiliz. Sormena, irudime-

na eta adierazpen artistikoa gustuko dutenek, margolaritza, eskultura eta argazkilaritza tailerrak izango dituzte zain. Bat-batekotasun eta mintzapraktika zaleek, osteraz, antzerkigintzan izena emateko aukera izango dute. Aurtengo beste barritasun bat tango argentinar ikastaroa izango da. Eta iaz legez, autoestima eta psikologia batzen duen ikastaroa ere eskainiko dute: 'Zein koloreta-koa da zure bizitza?'.

Izena emateko udaletxera, Kultur Etxera, Sopelarinera edo udal web orrira jo dezakezu, hilaren 30a baino lehen. ○



Bizkaiko Urtxintxa Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTAROAK
Tel: 94 432 04 45



Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

- Astialdiko Begiralea *Getxon* • Astialdiko Zuzendaria • Jendarte Kultur Dinamizatzailea
- Hezkidetzan Aditua • Kulturarteko Hezkuntzan Aditua • Heziketa Premia Bereziak Astialdian
- Parte-hartzea bultzatzeko Teknikak
- + IKASTARO LABURRAK

Itxaso Paia > Bertsolaritza eskolak Kurtzio Kultur Etxean

“Ikastaroa antolatu dugu bertsolaritzak Sopelan harrobia duela igarri dugulako”



Irailaren 30ean amaituko da izena emoteko epea

Ondo baino hobeto ezagutzen dute ume sopolotzarrek Itxaso Paia bertsolaria. Algortarrak Ander Deuna ikastolan bertsolaritza eskolak eskaintzen ditu, baina ikasturte honetan, gainera, bertsozaleek bertsotan ikasteko aukera izango dute Kurtzio Kultur Etxean.

—**Zertan datza zehazki ikastaroa?**

—Ikusita Ander Deuna Ikastolan zortzi urte inguruko ume piloa apuntatu direla bertsolaritzan aritzera, eta ikusita nagusien artean ere (15 urte ingurukoak) badaudela beste bertsolari batzuk eta herrian giroa badagoela, bururatu zitzaigun zer edo zer eskaintzea Sopelako herriari, ikastolatik aparte.

—Sopelan harrobia badagoela igarri duzue, horrenbestez...

—Bai, batez ere horregatik izan da. Zortzi urte inguruko ume pila bat animatu dira, euren artean erabateko harreman euskalduna dute... Gainera, Eskola arteko Bizkaiko finalean, bost gure eskolakoak izan dira eta hiru Ander Deunakoak.

—Zelako ordutegia izango duzue?

—Astean behin izango da, eguaztenetan, ordu eta erdi. Izena emoteko epea irailaren 30ean amaituko da. Adin guztietako-ei zuzenduta egongo da. Izan ere, umeeke badute ikastolan bertsolaritzan aritzeko aukera, eta beraz, ikastaroa hasibarrientzat izan daiteke, edo idatzizkoa lantzeko, hitzaldiak eskaini... Apuntatzen den jende motaren arabera izango da.

—Bistan da Sopelan azkenaldian bertsozaletasuna handituz doala...

**«Urriaren 28an
Bizkaiko Txapelketaren
sailkapen bat
ospatuko da Sopelan»**

—Aurreko urte bietan ikusi da gazteak gogor datozela eta herriari eskaintza eginez gero... Gainera urriaren 28an Bizkaiko Txapelketaren sailkapen bat ospatuko da herrian. Horrela, agian Sopela bertsolaritzaren erreferente izatera hel daiteke. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala
urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

GAZTELEKUAK EGITARAU OPAROA PRESTATU DU

Hamar urte bete barri ditu Gaztelekuak, eta urtemuga ospatzeko, iraila eta abendua bitartean egitarau potoloa prestatu dute bertako begiraleek. 13 eta 18 urte bitarteko gazteek jarduera ugari izango dute eskura Santa Anako lekalean. Irailaren 28an, adibidez, I. Musika lehiaketa antolatuko dute. Urriaren 5ean, barriz, Nerbioi ibaian zeharkaldia egingo dute piraguagaz, gauzez. Gainera, Kilometroak eta Nafarroa Oinezera txangoak antolatu dituzte. Urriaren 13an Mangamore eta Komiki jaialdia egingo dute, eta urtero legez, Halloween ospatzeko Beldur Gaua antolatu dute urriaren 26an. Azaroan bideo-jokoak gustuko dutenek PS3ko 'Black Ops' txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. Gainera, arropa birziklatzeko tailerra eta ginkana ez sexista izango dute zain azaroaren 10 eta 23an, hurrenez hurren. Abenduan, oster, sexualitate-tailerra, euskararen eguna eta euskal selekzioaren partidara urteera antolatu dute. Egitarauagaz amaitzeko, Madrileko jolas-parkera txangoa egingo dute 27an.

PARTE HARTU 'ZUTIK' ESKUPILOTA ELKARTEAN!

Berangoko 'Zutik' Eskupilota elkarteak ikasturte barriko entrenamenduak hasi ditu, eta frontoiaren ateak parez pare zabaltu gura dizkiete kide barriei. Entrenamenduak astelehen eta eguaztenetan dira, 18:00etatik 22:00ak arte eta sei urtetik gorako lagunei zuzenduta dago (649 957 908).



Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

Nazioarteko Miliak, 25 urte Irailaren 29an Berangoko Miliak XXV. edizioa ospatuko du; hasi luzaketak egiten!



lazko edizioan 200 lagunek hartu zuen parte

Punta-puntako atletak helduko dira Berangora irailaren 29an. Izan ere, egun horretan Nazioarteko Miliaren XXV. edizioa ospatuko da. Berangoko Atletismo Taldeak 1988. urtean sortutako proba hau ospea hartuz joan da urtez urte, Estatu mailan erreferente bihurtuz.

Josu Hernandez Atletismo taldeko presidenteak adierazi duenez, aurtengo edizioa berezia izango da, Miliak 25 urte betetzen dituelako: *"Guretzat garrantzitsuena urtero mailari eustea da"*. Gainera, Londreseko Joko Olinpiko-

etan parte hartu duten hainbat korrikalari hurreratuko da Berangora.

16:40ean hasiko dira aurreneko probak, 19:25 arte, Gobelalde kalean. Izena emateko epea irailaren 24tik 28ra arte luzatuko da, Berangoeta Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Telefonoz (94 668 21 43) eta e-postaz (millaberango@gmail.com) izena emateko aukera ere egongo da. Iazko edizioan Iris Fuentespila eta Juan Carlos Higueros izan ziren txapeldun, elite kategorian, ea aurtengoak zer dakarren. o

Info+: <http://www.berangoatletismo.com>



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Txarli Ahedo eta Anabel Fano > Antolintxu eta Madalentxu

“Izan dugun gauzarik onena plentziarren berotasuna izan da; jendeak hunkitu gaitu”



26. Antolintxu eta 6. Madalentxu dira

Lotu barik ibili dira aurtengo jaietan Txarli Ahedo eta Anabel Fano plentziarrrak. Izan ere, herriak 2012. urteko Antolintxu eta Madalentxu aukeratu ditu, 35 hautagairen artean. Zorionak bioi!

—Zelakoak izan dira aurtengo jaiak zuentzat, Antolintxu eta Madalentxu legez?

—Oso ederra izan da, esperientzia oso ona, azken urteetan gertatu zaigun gauzarik onenetakoa. Errepikatu ezin dugulako, bestela barriro egingo genuke, karkar! Jaiak beste modu batean bizitzeko aukera eman digu.

—Gau eta egun ibiliko zineten ekitaldiz ekitaldi, ezta?

—Bai, ekimen guztietan egon gara, goizeko 10:00etatik gaueko 03:00ak arte gutxienez. Marmitako egunean, adibidez, koadrila guztiei bisita egin genien: bost ordu baino gehiago koadrilaz koadrila. Baina ez gara asko nekatu, jaiegun

gehiago igaroko genituzke! Izan ere, ez dugu askorik edan, formal ibili gara.

—Eta auzokideek zer esan dizute?

—Jendeak hunkitu egin gaitu bere erantzunagaz. Izan dugun gauzarik onena plentziarren berotasuna eta maitasuna izan da. Musu piloa eman ditugu!

«Errepikatu ezin dugulako, bestela barriro egingo genuke!»

gu! Jendeak oraindino kalean agurtzen gaitu. Argazki asko egin dizkigute, eta danak batu gura genituzke *antolintxu.madalentxu2012@gmail.com* helbidean.

—Bestalde, herriko beste arlo batzuetan ere egin duzue lan, ezta?

—Bai, ni Arkote arraun taldeko zuzendaritzako kidea naiz [Antolintxu], eta ni [Madalentxu], ostera, ume bielorrusiarren aldeko elkartearen kidea naiz. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

EUSKARA ETA PINTURA IKASTAROAK BARRIKAN

Euskara, margolaritza edo informatika ikastaroetan izena emon gura duzu? Barrikan horretarako aukera izango duzu. Euskara eskolak oinarritzko maila edo erdi-maila dutenei zuzenduta daude. Margolaritza, barriz, ume zein nagusientzat eskainiko da. Bestalde, KZguneak informatikagaz lotutako hainbat ikastaro eskainiko ditu, debalde. Izena emateko epea irailaren 29an amaituko da.

IRAILA ETA URRIAN ERE EUSKARAZ OLGETAN!

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta, irailan eta urrian ere jarraipena izango du Euskaraz Olgetan egitasmoak. Irailaren azken astean disko-festa izango da, eta urrian, barriz, bideo-jokoak, betiko jokoak, ipuin kontalaria, astronomia eta puzgarriak. Lemoizen astelehenetan, Plentzian eguenetan, Urdulizen barikuetan, Gortizen zapatuetan eta Sopelan domeketan izango dira ekimenak.

PLENTZIako ARGAZKI LEHIAKETA ABIAN DA!

Argazkilaritza gustuko duten gazteek euren trebetasuna erakutsi ahal izango dute Plentziako Gazte Informazio Bulegoak antolatu duen argazki lehiaketari esker. Aurtengo gaia 'Berdintasuna' izango da, eta izena emateko epea urriaren 1ean zabaldu eta 7an amaituko da. Hiru sari eskainiko dituzte lehenengo hirurentzat: 150, 100 eta 50 eurokoak, hurrenez hurren.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

PLENTZIA

Irailaren 29an ospatuko da **III. Esaera Zaharren txapelketa**; erdu eta ederto pasa!



Lagun ugari batu da aurreko edizio bietan

'Ikusten ez duen begiak negarrik ez!'. Lelo horregaz ospatuko dute aurten Plentziako Esaera Zaharren txapelketa, irailaren 29an. Hirugarren edizioa da eta aurreko urteetan legez, ekimenaren helburua herrian giro euskalduna sortzea izango da.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, euskara hizkuntza aberatsa eta bizia dela aldarrikatu eta erakutsi gura dute: "Esaera Zaharren txapelketa modu dibertigarria da eguna euskaraz pasatzeko eta jendeak ikusteko euskaraz ere ondo pasa dezakegula, ez dela bakarrik eskolan edo euskaltegian erabiltzeko hizkuntza, tituluak ateratzeko balio diguna".

Horretaz gain, esaera zaharren ezagutza ere bultzatu nahi dute, herritarrek ikus dezaten eguneroko egoeretan esaera zaharrak erabil daitezkeela: "Horrek esaerak erabiltzea ahalbidetzen du, errazagoa da erabiltzea ondo erabiltzen ikasten badugu, eta egoera bategaz

lotuta ikusten ditugunean hobeto ulertzen dugu". Ikasi bai, baina txapelketaren osagai nagusia, zalantza barik, Plentzian sortzen den giro jatorra da: "Ikasteaz gain ondo pasatu ahal baduzu, zer gehiago eskatu ahal da? Giro oso ona sortzen da herrian, tabernetan..."

**"Herri-bazkaria
egingo dute 15:00etan
Jai-Alai frontoian"**

Egitarauari dagokionez, eguna zati bitan egongo da banatua. Goizeko 11etan hasiko da aurreneko atala. Eleiz Enparantzan lotu eta poteoa hasiko dute herriko tabernetan, taldeen artean txapelketa egiten duten bitartean. Bazkaria Jai-Alai frontoian 15:00etan izango da (txartelak 11 eurotan salgai) eta bigarren zatia hasiera emango diote. Bertan Jon eta Alaia Martin bertsolariek botako dituzte txapelketaren finaleko bertsoak ○

Ira. 24 - Urr. 8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEIOA

- **Arte eta artisautza tailerrak.** Irailaren 30 arte. Kultur Leioan.
- **Bosteko.** Urriaren 4tik azaroaren 4ra. Kultur Leioan.

GETXO

- **Ananpurrekin konprometitua (argazkiak).** Urriaren 2tik 31ra. Algortako Azokako aretoan.
- **ArgiHizkiak.** Urriaren 9tik 31ra. Algortako Torrean aretoan.

MUSIKA

SOPELA

- **Inkestas Rock.** Irailaren 27tik 29ra, 20:00etan. El Peñon tabernan. Doan.

ERANDIO

- **Kondiximulo Bilborleas.** Irailak 28, 20:00etan. Altzagako ontziralekuan. Doan.

ZINEMA

LEIOA

- **'Cine Menditour' zikloa.** Urriaren 1etik 3ra. Kultur Leioan. 3 euro.
- **Intocable.** Urriak 2, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.
- **Las nieves del Kilimanjaro.** Urriak 9, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.

BARRIKA

- **Lorax.** Urriak 5, 18:00etan. Ander Deuna Kultur Aretoan (Goierrri).

SOPELA

- **El problema (dokumentala).** Urriak 5, 19:30etan. Kurtzio Kultur Etxean. Doan.



Info+: www.getxophoto.com

► Erakusketa

Getxophoto: *Ibili*, bisita gidatua euskaraz

Getxoko argazki erakusketa ezaguna ikusteko azken egunak dira, izan ere, irailaren 30era arte iraungo du. Umeei gorazarre egin dieite oraingoan eta argazkiak ganoraz ezagutzeko aukera izango duzu, eta euskaraz: bisita gidatua antolatu dute hilaren 29rako, zapatua. Goizeko 11:30ean urtengo da Algortako metro geltokitik eta 2 euro ordaindu behar da parte hartzeko. Ordu bi inguru iraungo du ibilaldiak eta izena emon behar da aurretik. Horretarako, 946 576 475 edota 688 644 740 telefonoetara deitu edo getxophoto@getxophoto.com helbidera mezua bidali behar duzu. Parte hartzaileen artean Camper zapata pareta zozketatuko dute. Deitu berandu baino lehen!

- **Non:** Algortako metroan • **Noiz:** Irailaren 29an, zapatuan, 11:30ean

- **Paga congelada (Emakumeak eszenan).** Urriak 6, 19:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 3 euro.

BESTEAK

BARRIKA

- **Konpostaje tailerra.** Irailak 28, 18:00etan. Abaroa parkean.
- **Irakurketa suspertzeko tailerra.** Urriaren 11n, 18:00etan. Liburutegian.

BERANGO

- **Berangoko Nazioarteko XXV. Milia.** Irailak 29.

SOPELA

- **Kurtzio Kultur Etxeko tailerretan izen-emotea.** Irailaren 30 arte.

PLENTZIA

- **Berdintasunari buruzko argazki-lehiaketa.** Urriaren 1etik 7ra. Gazteria Zerbitzua.
- **Sukaldaritza tailerrean izen-emotea.** Urriaren 11 arte. Goñi Portalen.

GETXO

- **Literatura solasaldia Josune Muñozegaz.** Urriak 5, 19:00etan. Algortako kultur etxean.

LEIOA

- **Txitxiburruntzi Eguna (Bernalamiñe Euskara Elkarte).** Urriak 6, zapatua. San Bartolome auzoan.

LEMOIZ

- **Euskeraz Olgetan.** Astelehenero, 17:00etatik 19:00etara. Urizar eskolan.

GORLIZ

- **Txalaparta eta alboka ikastaroak.** Barikuetan, 18:30ean eta 19:30ean. Sertutxenean.

ANTZERKIA

LEIOA

- **Perdiendo el tiempo, dantza eta zirko ikuskizuna.** Irailak 29, 19:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.
- **Avanti.** Urriak 5, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.
- **Consonant dantza ikuskizuna.** Urriak 7, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
- **El sombrero del rey y su pluma.** Urriak 10, 19:30ean. Kultur Leioan.

ERANDIO

- **Buenos dias Margarita.** Irailak 29, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.
- **Gente guapa, gente importante.** Urriak 6, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

GETXO

- **Ocasiones especiales.** Irailak 29, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 12 euro aurretik, 15 euro bertan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[alabuma]




Folka, begirada bat

Egia da, Getxo Folk-ek gogokoago duela beste zentzumen batzuk limurtzea; hamaika doinu eta zaporez betetzen ditu Areetako Geltoki plaza eta inguruak... Ostera, begirada batek ere kulturartekotasunaren, aniztasunaren koloreak jaso litzake; irudiotan jaso dugu horren adierazgarri. Argazkiok zuri-beltzean ikusten badituzue ere, kontzentratuz gero, hamaika kolore, zapore, usain eta doinu dariela baietz antzeman!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





[argazkia]





Basagoiti dorrea

XV. mendetik zutik

Erdi Aroan, Bandokideen Gerra garaiko liskar latzak bizi izan zituen Berangok, batez ere XIII, XIV eta XV. mendeetan; ibargoendar eta butroitar bertoko leinuek aurrez aurre borrokatu zuten. Garai hartan, gitxienez bost gotorleku edo dorretxe zegoen Berangon; zutik dirauten bietako bat da Basagoiti. 9 metroko altuera duen eraikin kubikoa da, Udal webgunean azaltzen dutenez: “behealdea harlangaitzekoa da eta goialdea harlanduzkoa. Bere bolumen kubikoak, tresna gotiko ingurubirako hormek, puntadun hutsuneren batek eta gotikoa den beste batek bakarrik irauten dute, eraikinaren erreforma eta erantsiak direla bide. XVII. mendean sarreran patina zuen pabilioia eta ate ojibala erantsi zitzaizkion. Atearen gainean gurutze latindarra duen armarria dago. Gehiago jakin gura duenak, Alberto Diez Saezen *Berango, 40.000 años de historia* liburura ere jo dezake, hainbat orri eskaintzen dizkio-eta Basagoiti dorreari.

Imanol Rodríguez "Mastigane"-k utzitako argazkia

Dragoi ehizaria grabatzen amaitu zutenean Asier Hormaza aktore algortarra, filmako protagonista, alkarrizketatu genuen. Orain, filma zineetan dagoela, Angel Amigo (Errenteria, 1952) gidoilariagaz egin dugu berbetan; baita aurten ekoitzi dituen *El otro lado del espejo* (*Ispiluaren beste alde*) eta *Memorias de un conspirador* (*Konspiratzaile baten memoriak*) dokumentalez ere bai. Ikus-entzunezkoen munduan, bai telebistarako bai zinemarako, beharrea 32 urte daraman gidoilari, zuzendari eta ekoizleak, azken boladan, honegatik edo horregatik dela eztabaiden zurrumbiloan murgilduta ikusi du bere burua. Bere lanen artean daude, besteak beste: *Segoviako ihesia*, *Ehun Metro*, *Maite*, *Bi eta Bat*, *Jaun eta Jabe*, *La Mafia en La Habana* e.a. Buruan egitasmo andana darabiltzala aitortu digu, “polemikoak izan litezkeenak; momentuz, ezin gehiagorik aurreratu”.

Angel Amigo

Zurrumbiloaren erdian, sortzen

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Barton Films**

—Kuban grabatu zenuten *Dragoi ehiztariaren* zati bat... ez da zure lehenengo aldia izan han grabatzen duzuna, baina zelako esperientzia izan zen?

—Han grabatzeko bizpahiru arrazoi garrantzitsu genituen: batetik, filmaren gaia Erdialdeko Amerikan kokatzen delako, oro har Nikaraguan eta El Salvadorren, Hondurasen ere bai... baina, leku horietan ez dago azpiegitura ego-kiegirik, eta Kuban bai, eta badaude antzeko paisaiak ere bai; bestetik, posible izan zen kubatarrekin batera koo-produzitzea, aspaldi daukat nik eurekin harreman oso ona. *Maite* pelikularekin hasi nintzen haiekin lanean, eta geroztik 12 bat lan elkarlanean ekoitzi ditut eurekin; beraz, haien laguntza ekonomikoa eta logistikoa bagenuen, eta paisaia ere lagun.

—Aurrekontu handiko filma da, makroproduktzio horietakoa...

—Gure zinemagintzan, Euskal Herrian eta euskararen arloan, bai hala izan da. Halere, ez dakit, hori meritua den ala zirkunstantzia. Garai hartan, krisialdia baino lehenago justu-justu, orduan lortu genuen TVE-ren laguntza eta ETB-ren laguntza, kubatarrena ahaztu gabe, beraz, momentu hartan posible

azken partean, bada horixe, periodikue-tan egunero irakurtzen dena: krisia, arazoak eta arazoak, banka dela, deskontuak ezin direla. Baina, azkenean, bukatzea eta pantailan jartzea lortu dugu.

—Baina orain ika-mika: Patxi Barkos zuzendariaren desadostasunak...

“Halako eztabaidak film gehienetan daude... Baina ezagutzen ditudan leku guztietan korte finala ekoizlearena da”

izan genuen diru hori batzea; orain ez, ezinezkoa, aurrekontuak asko jaitsi dira, bai hemen baita munduan ere.

—2010erako aurreikusten zen estreinaldia. Krisialdia izan da zinetara hainbesteko atzerapenagaz heltzearen arrazoia ala besteren bat?

—Konpainian arazo batzuk izan genituen, eta lana finantzatzeko orduan,

—Neuk ez dut izan polemikarik. Berak kontratua sinatu zuen eta bertan adierazten zenez “korte finala” deritzona, hau da bukaera, zuzendariak proposatzen duela, halere, desadostasunik egonez gero, “korte finala” ekoizlearen esku geratzen dela; eta munduko kontratu guztietan agertzen da hori. Orduan, arazoak izan ditugu berarekin, bai.



Beno, daramatzadan urte hauetan guztietan mota askotako arazoak izan ditut, hau beste bat da; baina, berak ez du onartu klausula hori, berak izan nahi zuen pelikula noiz eta nola bukatu behar zuen esaten zuena, eta kontratuan beste gauza bat esaten zuen. Hortaz, ni ez naiz sartuko eztabaidan...

—Azken-ebagitze horretan aldaketa nabariak izan dira? Amaiera aldatu da?

—Ez, ez, bat ere ez. Dena arrazoitu dugu. Nolabaiteko norgehiagoka izan da, besterik ez. Baina, ez nuke nahi horretan sartu. Pelikula guztietan egoten dira eztabaidak, ika-mikak, hausnarke-tak, erabakiak... horiek pelikularen barneko parteak osatzen dute, isilpeko aitortzak edo izaten dira, normalean hor, barruan, gelditzen dira, eta aginte-egiturak bere ondorioak izaten ditu, eta kito! Inork ez ditu, esaterako, egunkari batean, kontseiluan egon diren eztabaidak aireratzen, zuzendariak erabakitzen du erredaktoreekin egon ostean, eta kito! “Korte finala” deritzoguna oso garrantzitsua da. Aspaldi mundu osoan dagoen polemika edo da. Horren atzean dagoena da produktua zeinek kontrolatzen duen; enpresak ala kontratatuak. AEBetan kontrol osoa enpresarena da, gidoia, muntatzea, filmatzea e.a. Europan ere berdin. Bestela, korte finala zuzendarien esku geratuko balitz, enpresa gehienak pikutara joango lirakeke. Epeak, betebeharrak eta gainerakoak daude. Industriaren funtsa da artikulua hori. Nik ezagutzen ditudan leku guztietan korte finala ekoizlearena da. Zertaz eta zenbat eztabaidatu genuen hitz egiten hasiko bagina, ez dakit zenbat egun emango genituzkeen. Gainera, horrelako lana egiten duzunean, banku zuzendaria bezala da, hau da: ezagutzen ditu bezeroen barneko kontu intimo piloa, baina lana bukatzen duenean ezin du hitz egin; ezin du tabernara joan eta esan “begira, familia horrek ez dauka dirurik, kreditua eskatu dit”. Errespetuz jokatu behar...

Eta honekin bukatzeko, niretzat oso garrantzitsua da nirekin lan egingo duen edozein zuzendarik jakitea konfidentzialtasun hori errespetatuko dela, ez dugu erabiliko polemiketarako e.a. Baina, polemikarik ez da egon; beno, egon da, kanpoan, baina guk ez dugu horrela ikusi. Horrelako eztabaidak pelikula gehietan daude, baina azkenean produkto-

ko. Asko gustatzen zaizkit horrelako historiak eta.

—Eta hiru horien artean zelan sentituzinen?

—Hiru... Lau... Aipatutakoez gain, apartekoa, aparteko hori ez dut sartu, beno erabaki nuen zati bat baino ez sartzea. CIAren buruzagiena, han Nikaraguan egon zirenean. Oraindik nago

“Beste mundu bateko pertsonak dira! Alde batetik normalak, baina egin zituztenak beste mundu batekoak!”

reak esaten du “bukatu egin behar” eta “horrela, eta hala”, eta kito! Eta hori ez da ateratzen. Baina beno berak jakingo du zergatik atera duen ohar hori.

—Bestalde, hori ez da aurten parte hartu duzun film bakarra, martxoan *El otro lado del espejo* (Ispiluaren beste alde) dokumentala aurkeztu zenuten; Kuban grabatzen zeundetela sortutako ideia baten harira...

—Dragoia-ren semea izan da hori, dragoitxoa! Gidoia egiteko ikerketak egiten ibili nintzen Kuban; Nikaraguako gerra hartan kubatarrek ere ibili zirenez, batez ere gauzak nola izan ziren jakiteko. Orduan, Nikaraguan egondako Inteligentzia-jeneral kubatarra ezagutu nuen, eta bera gauzak kontatzeko prest agertu zen. Bere bitartez Sandinisten Inteli-

txundiduta! Beste mundu bateko pertsonak dira! Beno, alde batetik normalak, baina egin zituzten gauzak beste mundu batekoak ziren!

—Zelan hartu du ikusleak?

—Horrelako gaiak gustuko dituztenek, uste dut, oso ondo hartu dutela, arrakasta izan duela. Normalean, dokumentalek ez dute arrakasta handiegirik pantailetan; gero, telebistan neurtzen da euren arrakasta. Eta, ez dakit nik bada, munduan zehar ikusiko da. Dokumental baten karrera bide luzekoa da, eta hau oso klasikoa da. Inteligentzien gerra nolakoa izan zen kontatzen du, eta edozein momentutan ikus daiteke, ez dauka momentu honetan gaurkotasunik, eta horregatik edozein kateak eman dezake; dagoeneko baditugu hainbat eskaintza,

“Badirudi, urte honetan, guztietan nabilela... Eguigurenen erabakia jakin zenean ere zalaparta sortu zen...”

gentzia Militarreko buru nagusien kontaktak lortu genituen. Gero, ondorio bezala, Errusian, azken KGB-ren zuzendariarekin harremanetan jartzea lortu genuen. Eta denak prest agertu ziren Nikaraguako gerrari buruz hitz egiteko, eta batez ere, Inteligentziako gauzak kontatzeko, fronte sekretu horretaz jardute-

pixkanaka joango gara. Niretzat, hori egitea luxua izan zen! Dragoitik atera zena, baina, pozik!

—Urte benetan oparoa zuretzat! Hori ere ez delako azkena! PSE-ko Jesus Eguigurenen gaineko dokumentala ere aurkeztu duzu, *Memorias de un conspirador* (Konspiratzaile baten memoriak).

—Espioiekin hasi nintzenez... Orduan bezala, honekin ere, jakin-min handiz hasi nintzen. Batez ere, azken urteetako ETA-ren eta Eguiguren edo Gobernua-ren arteko elkarrizketak nolakoak izan ziren ezagutzea interesatzen zitzaidan. Horri buruz, bada liburu bat, oso tekniko eta datu aldetik kopurutsua. Beraz, erabaki genuen, Eguigurenek eta biok,

egin; nekatuta nago. Itakara bueltatzen naiz, etxera noa. Eta, orain, gustatuko litzaidake bizitza pertsonala izatea". Eta hori azaldu zenean, beste zalaparta bat sortu zen. Badirudi urte honetan guztietan erdian nabilela. Eta hori lehenengo zatia baino ez da, bigarrena: dokumentala *"a la consideración del Comité del Festival de Cine de San Sebastian"*-era

na, beno, eurek ezetza ematea erabaki dute. Beraz, aurkeztu egingo dugu, Festibala baino lehenago. Kalitate handiko dokumentala da, gero bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Presoena dagoneko aurkeztu dute Victoria Eugenia. Beraz, benetan hilabete zinematografiko izango dugu!

—Bai fikzio eta bai dokumentalean ere gai politikoak gogoko dituzu.

—Egia esan, egin ditudan lan gehienak komediak dira, gero sona handiagoa dutenak, agian, bai, politikoak. Baina, Kuban egindakoetatik gehienak komedia hutsak dira; baina, beno, normala ere bada politikoak, *Galindez* e.a., gehiago ezagutzea. Baina egin ditudan lan gehienak ez-politikoak izan dira, eta gehienak kanpoan egindakoak, Hego eta Erdialdeko Amerikan zein Europan; nire lana hemen ez da ezagutzen! Intrigazko lanak ere egin ditut, eta bestelako dokumentalak ere bai, esaterako: orain urte batzuk, zentzategia balitz itsasontzi batean sartuta zituzten ume batzuei buruzko dokumentala egin nuen. Baina jendea horrekin ez da gogoratzen. Gai politikokoekin gelditzen da; batetik, ziurrenik prentsaren jarraipen handiagoa dutelako, bestetik, gaiaren eta gaia ukitzeko moduaren arabera ere. Espioen pelikulak bere jarraipena izan zuen, baina ez denez gaurkotasunezkoa. Jesusena bai bada, baina ez dakit zenbat baba zapalduko genituen... ○

“Nire lan gehienak ez-politikoak dira, eta gehienak kanpoan egindakoak; nire lana hemen ez da ezagutzen!”

dokumentala alde pertsonal batetik abiatzea; zertaz hitz egiten zuten kontatzeaz gain, jende horrekin hitz egitean berak bere baitan zer sentitzen zuen kontatzeko. Bera mehatxatua izan da, bizkartzainekin ibilitakoa eta haiekin hitz egiten egotea bada. Horrek, niri, behintzat, jakin-min handia sortzen zidan. Orduan, batez ere kontatzen ditu: alde batetik, alde pertsonal horretatik bere inpresioak nolakoak izan ziren, elkarrizketak ere bai, Arnaldo Otegi, Thierry, Josu “Ternera” eta beste batzuekin; bestetik, bitarte horretan, aspaldi bere baitan zeraman beste zerbaite askatu zen, nahiko nekatuta zegoen, kritika piloa jaso ditu leku guztietatik eta grabazioaren azken egunean, esan zuen: *“nik honekin bukatu dut nire lana, gehiago ezin dut*

aurkeztu nuen, eta nahiz eta hasieran dokumentalarengatik interes handia agertu, gero hozten joan zen, eta azkenean ezetza eman ziguten. Eta hortik beste polemika bat sortu da! Festibalaren erabakia da, eurek soberan dute hala erabakitzeko, bestela! Baina, arazoa zein izan da? Atzera bota dutela presoei buruzko beste bat (*Barrura begiratzeko leihoak*), eta biak atzera botatzean sortu da polemika: ea erabakian kriterio politikoak egon diren ala ez. Niri behintzat berdin dir kriterio politikoak, gastronomikoak edo geografikoak diren; zilegi dira niretzat, benetan. Baina, gero, bakoitza erantzule da. Gauden inguruan, herrian, momentuan ea bi dokumental horiek. Nik pentsatzen nuen Festibalean biak erakustea benetan interesgarria zela. Bai-

Kazetari bidean... zinema!

—Kazetari izateko, eta 30 urtetik gora zinemari!

—Nik oraindik erlijioa ez dut erabaki! (kar, kar) Zinea egitea ez dut erabaki, erabaki nau! Espetxean egon nintzen, Francoren azken urteetan, lau urtez. Amnistiarekin irten nintzenen, kazetaritzan... nire bokazioa den kazetaritzan hasi nintzen, idazten, Egin-eko lehen epean, korrespontsal

modura beste askotan: Zeruko Argia zenean, kaputxi-noekin, Punto y Hora-n, gero Ere aldizkarian e.a. Espetxean, Segoviako ihesean parte hartu nuenez, historia kontatuz liburuak idatzi nuen; Imanol Uribek irakurri, eta zinemari kontatzeko gustatu zitzaioela eta, informatzeko edo kolaboratzeko edo deitu zidan, azkenean gidoia idatzi nuen.

Azkenean, dirua bazuela esan baidan ere, pezeta bat ere ez zuen, eta produkzioarekin hasi nintzen. Eta nola produkzioak luzeak izaten diren... pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen... Orain, gutxi gorabehera 100 bat produkzio eginda dauzkate telebistan eta zinean. Baina, nire bokazioa kazetaritza da; baina, berandu nabili!



Izotza eta sua

Islandia: izotzaren eta suaren lurraldea. Abuztukoak dira argazkiok, izotza urtu eta sumendi-paisaia agertzen denekoak. Lur orotako ibilgailuan egin zuten bidaia Ana Egeak eta Gonzalo Iribarnegarayk,

Islandiako glaziar eta sumendietan barrena. Behin baino gehiagotan ekarri ditugu Iribarnegarayren argazkiak orriotara, beti ere bidaiei lotutakoak, baina argazkigintza ez da bere egiteko bakarra. Nobelak ere idazten ditu, oraintsu argitaratu du *Tiempos turbulentos*, eta *Ultramar* amaitzen dabil.

Argazkilari bien lanak ikus daitezke beren webguneetan:
www.gonzaloiribarnegaray.com eta www.anaeagea.blogspot.com.es.

Argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray eta Ana Egea**



[fotografia]





[fotografia]





Plentziako Edari Zahartzearen Itsaspeko Laborategia

Ardoaren zahartzearen ikerketa itsasoko ur azpian: zapore eta usain eztanda

Edarien garapena ikertzeko itsaspeko lehen laborategia da mundu mailan eta Plentziako badian dago. 2010ean sortu zuten eta emaitza oso onak eskuratu dituzte, ardo propioa ere badaukate-eta. Gainera, arrezife artifiziala garatu dute zonaldean eta fauna berreskuratzen hasi dira.

Rona edaten ei zuten piratek, eta askotan, itsasoan urperatzen ziren botilak, euren itsasontziagaz batera. Urteen ondoren, botila horiek aurkitu, zabaldu, eta, ehunka urtetan itsaso azpian egon ostean primeran mantendu ziren, antza. Istorioak istorio, munduko hainbat lekutan aurkitu izan dituzte ardo eta likore botilak itsaso azpian, eta horretaz jabetu ziren Bajoelagua Factory elkarterko lagunak. Plentziako itsaspeko labora-



Bajoelagua Factory / Enrique Talledo

tegia kudeatzen du hark, 2004an sortu zen itsasoari buruzko ikerketak egiteko, jakin bazekien, munduko hainbat lekutan ardo botilak berreskuratu direla ur-

peratutako itsasontzietatik. Lur gainaren aldean bilakaera desberdina izan dute ardook eta nazioarteko merkatuan pre-

Hamar modulu dauka upeltegiak: bi ikerketarako eta zortzi ekoizpenerako

zio oso altua lortu dute. Ildo hori ikertzea erabaki zuten Bajoelaguako lagunek.

Horrela, urperatutako ontzietan emoten ziren baldintzak zelan birsortu pentsatzen hasi eta proiektua osatu zuten: laborategia izango zen. Plentziako Udalarai aurkeztu zioten, eta hark onartu. Adostu zuten, Udalak modulu bi izango zituen eta, ordainetan, elkarteak laborategia muntatuko zuen. 2010ean zabaldu zuten edarien ikerketarako

Borja Saracho > Laborategiko gerentea

“Arrezife artifizialagaz zonaldeko fauna leheneratzea lortzen gabiltza: erabat suntsituta zegoen eta ez zegoen ezer”

—Lehenengo urte biak eta gero, zein da helburua une honetan?

—Batetik, ikertzea: edariak urpean bilakaera desberdina izateaz gain, osasunerako onuragarriak izan daitezke. Upeltegietako jabeakaz batera euren ardoa probatu eta bilakaera ikusten dugu, batez ere sei hilabetetik aurrera; guztiak poztarren daude emaitzakaz. Guretzako oso polita da ardandegidunek aitortzea itsasoak zer edo zer ekarri diela bere ardoei:

ilusio handiz hartu dugu, gainera, oihartzun handia izan dugu nazioartean. Bestetik, arrezife artifizialaren garapen ikusgarria lortu gura dugu. Daborduko, zonaldeko fauna leheneratzea lortzen ari gara: erabat suntsituta zegoen eta ez zegoen ezer. Fauna leheneratzeaz gain, itsasoaren egoeraren bio-adierazgailua ere bada. Adibidez, laminaria alga birsortu da zonaldean, Kantabriar itsasoan ia guztiz desagertuta zegoena. CSIC zen-

troko urpekariak eta biologoak ibili dira ikuskatzen eta guztiek diote ikusgarria dela han daukaguna. Hartutako laginak ikertzen hasi dira biologoak, eurentzako liluragarria baita sortzen ari dena. Proiektua kaltegarria ez izatea eta, gainera, onuragarria izatea saiatzen gara, hori da asmoa; eta gainera, ekintza ekonomikoa ere garatzen dugu. Beraz, oso pozik gaude orain arteko lanagaz.

—Ardo propioa ere sortu duzue, ezta?



Bajoelagua Factory / Enrique Talledo. Info+: www.underwatercellar.com

munduko lehen itsaspeko laborategia.

Hasteko, jatorrizko deituradun upel-tegiei eskaini zieten botilak laborategian sartzea, doan; 14 upeltegi animatu ziren eta bakoitzak 24 botila emon zuen: 12 urpean sartu zituzten eta beste 12 ur gainean, alderaketa egin ahal izateko. Behin ikerketarako epea amaituta, urte bi,

Udalaren instalazioa erabiltzeko eta ustiatzeko lehiaketa irabazi du elkarteak.

Alokairua ordaintzen du ustiapenagatik eta upeltegia handitu ahal izan du: 500 metro koadro dauzka eta 20.000 botilarentzako tokia: hainbat motatako ardoak, garagardoa, txanpaina eta cava. Oraindino ez daukate beteta, baina

laborategiko arduradunek espero dute kopuru hori betetzea datozen urteotan.

Ardo propioa eta bisitak

Ildo horretan, ardo marka propioa sortu dute: Crusoe Treasure; elikadura arloan Best Pack Urrezko Domina 2012 jaso du eta, *packaging* arloan, Sol de Plata 2012 saria. Baina ikertzen ere jarraitzen dute, bai ardoakaz, bai garagardoagaz. Gainera, instalazioaren inguruan sortu den arrezife artifiziala ikertzen dabilta:

Crusoe Treasure ardoa sortu dute eta hainbat sari jaso du daborduko

modu horretan sortu ei zuten instalazioa eta ikerketa egiteko biologo bat daukate.

Laborategia bertatik bertara bisita daiteke, hiru ibilalditan: urpekaritza eta ardo-dastaketa egin daiteke, itsasontzian ibilaldia eta dastaketa, eta zetazeoak ikusteko ibilaldia. Horietan parte hartze-ko Bajoelagua Factory elkarteagaz harremanetan ipini beharra dago: 944 015 040 edo info@bajoelagua.com. ○

—Bai, marka bat sortu dugu: Crusoe Treasure. Batez ere, Asiako merkatuetan aurkeztu dugu, eta bestelako ardo batzuk egiteko asmoa ere badugu, munduko beste gune batzuetan saltzeko, eta anforakaz ere ari gara lanean. Ilusio eta ahalegin handiz gabilta lanean, apurka-apurka, espero dugu proiektua guztiz gartzea lortzea.

—Zenbat denbora irauten du ardoak urpean, zapuztu aurretik?

—Ez dugu ezagutzen informazio guztia, baina urpean ehunka urte egon diren ardoen barri daukagu. Halere, ikertzen jarraitu behar dugu. Garapena ikusiz goaz eta ardoa perfektua denean, erosleagaz akordioa egin eta itsaspetik atera-

tzen dugu. Urtearen bueltan edukitzen ditugu urpean, ardoaren arabera denbora gehiago edo gutxiago.

—Zertan nabari da garapena?

—Bitxia da ardoaren garapena. Batez ere indartzen dira frutaren usainak, koloreak eta leuntasuna edatean. Edateko ardo oso atsegina da. Gainera, aldaketa kimikoak ere gertatzen dira: antzeman dugu histaminetan eta hainbat parametrotan. Hortaz, iker daitezke osasunerako onurak, alergikoak ez izateko, e.a.

—Zenbat modulu?

—Hamar modulu dago: horietako bi ikerketa egiteko erabiltzen dira, eta gainontzeko zortziak, ekoizpenerako. Lagin txikiakaz ikertzen da: kortxoak, beirak,

etiketak, mahatsak, e.a. Anforetan sartzen ditugu, poltsa txikietan. Ekoizpen aldean, botilak kaiola handiagoetan sartzen ditugu. Ekoitzi, gure ardoa ekoizten dugu eta ikerketaren arloan, upeltegi askogaz lan egiten dugu. Orain, urtean 20.000 botila sar ditzakegu urpean; kopuru horretara iritsi gura dugu, baina orain gutxiago daukagu.

—Bildumagileentzako ardoa da?

—Diru kopuru adierazgarria ordaintzea posible dutenentzat. Egia esan, botilaren prezioa ez dugu asko kargatzen, baina ordaindu behar dira banaketa, garraioa edota ardoari egindako analitikak, eta horiek eragiten dute prezioa asko handitzea. ○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik, Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Lehiaketa Leioan

Film laburrak **aurkezteko epea**
urriaren 19an amaituko da



Info+: www.kulturleioa.com
infokultur@leioa.net / 946 072 578

Begi batek Donostia aldeko eskaintza, kritikak, eztabaidak, izarrak, hutsuneak, zein aurkezpenak jarraitzen dituen heinean, besteak hurbilagoko garrantzizko kontu "xeheagoei" begiratzen dio. Lehenengoaren ikuspegia zabalagoa izanda, horren barri andana irakurtzeko aukera izango duzu han eta hemen; oster, bigarrenaren begiratuak, bertokoak, deitu du gehiago gure arreta. Hala, gura duenarentzat, Leioako Film Laburren Lehiaketan parte hartzeko eginbeharren barri emongo dizugu.

XIX. ekitaldia da aurtengoa eta bertara aurkeztu gura duenak hurrengo

betebeharrak edo ezaugarriak kontuan hartu beharko ditu: gura duen orok parte har dezake, lanak zuzeneko grabazioak edo animaziozkoak izan daitezke, euskarazkoak zein gaztelaniazkoak, gaia librea da, eta originalak eta argitarabakoak izan behar dute. Iraupenari dagokionez, gehienez 15 minutukoak izango dira; eta euskarriari dagokionez, DVD-an.

«Sari-banaketa eta lanen proiektzioa azaroan izango dira»

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, saritzeko orduan, epaimahaiak, besteak beste, honakoak hartuko ditu kontuan: "kalitate artistikoa, sormena, originaltasuna, maila teknikoa, produkzioa, eta kontzeptua." Sari-banaketa azaroaren 30ean izango da, 19:30ean, Kultur Leioan; saritutako lanak egun horretan proiektatuko dira eta Kultur Leioako webgunean ere ikusi ahalko dira. Euskarazko eta gaztelaniazko film labur onek 1.000 bana euroko saria izango dute, bigarren saria 700 eurokoa izango da, eta herriko egileen artean lanik onenarentzat 400 euro. ○

Lanak aurkezteko helbidea:
KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe plaza 11, 4.
48940 Leioa (Bizkaia)

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Rockak agintzen duenean

Sopelako Inkestas Rock Festibal-a

El Peñon-en hileko azken aste akabuan



Rise to Fall taldea izango da partehartzaileetako bat

Irailaren 27tik 29ra izango da aurtien Inkestas Rock Festibal (IRF) jaialdia, Sopelako Atxabiribil hondartzan dagoen El Peñon tabernan eta inguruetan. Rocka nagusi den festibala bertan antolatzen den lehenengo urtea da aurtengoa.

Daborduko egitaraua prest dute. Tokiko taldeak nagusi izango dira, hori da eta antolatzaileen helburuetako bat, tokiko taldeei ezagutarazteko aukera eskaintzea; oster, esan barik doa, jaialdiaren asmo nagusia rockzaleentzako eskaintza "urria" zabaltzea izan dela hasieratik, antolatzaileek diotenez. Hiru eguneko

egitaraua hurrengo taldeek osatzen dute: Rise To Fall (Sopela/Bilbo), Nodrama (Leioa), A.D. (Markina-Xemein), 4x4 (Sopela), El Niño Katana (Uribe Kosta), Surf Is Dead (Sopela), Melmak, Mushroom Caffeine (Hondarribia), Marmoka Baltzak (Algorta), Naica (Hondarribia), FCM (Sopela), Two Mules And A Rainbow (Arrigorriaga), Molikote (Uribe Kosta), Peter Abels (Sopela), Membri's Band (Sopela), The Hysteria (Getxo), Tranxilium Trio (Sopela), The Basement Tapes, Megamif (Bilbo) eta Yawnbirds. ○

Info+: www.inkestasrockfestibal.com

diskoa > marmoka baltzak

Uda hasieran plazaratu zuen Algortako taldeak *Baltzak* estreinako lana, "Guaitorock-ek antolatutako maketa lehiaketaren fruitu". Ziurrenik eskualdeko gaztetxeren batean edota tabernaren batean dagoeneko entzungo zenituen Endika (bateria), Judas (Zigor; baxua), Koko (gitarra), Peio (gitarra) eta Landerrek (ahotsa) osatzen duten Marmoka Baltzak-en doinuak; hamaika zuzeneko eskaini dituzte-eta uda honetan. Urdulizko Tio Pepe estudioetan grabatu dute letra zuzen eta aldarrikatzaileak zein garage, punk eta oro har hardcore doinuak nagusi dituen 11 abestik osatzen duten CD-a.

Harremanetarako: 650 189 512
629 728 703

bueltan > ukabilkada

Orreaga 778 taldeko lagunek Azpeitiko 2. fanzine egunean euren azken kontzertua egingo zutela eta, zuzenekoak eskaintzera gonbidatu zituzten Ukabilkadakoak: "Orreaga eta Ukabilkadak harreman estua izan dute beti eta horregatik ezin izan genuen (ez genuen nahi gainera) gonbidapena ukatu. Gainera 2012. urte, urte oso berezia da guretzat, gure ibilbidearen hasieran atxilotutako Ukabilkadako kide den Martin askatu dutelako...", adierazi dute taldekideek. Irailaren 22an izan zen emanaldia, oster, iragarri digutenez: "Printzipioz kontzertu bakar bat izango da, baina batek daki, Uribe Kosta beste kontzertu bat emoteko egitasmoa hor dago".

diskoak

Pleistozenoko asteleh...

Jupiter Jon
Bidehuts



Gabon Caligula izenagaz emon zituen lehenengo zuzenekoak oraintsu Pleistozenoko Astelehenak lana plazaratu duen Jupiter Jon laukoteak. Aida Torres (bateria-jotzailea eta ahotsa; Lisabö), Baxi Ubeda (gitarra eta ahotsa), Joxe Caballero (baxua) eta Nerea Garridok (gitarra) osatutako 10 kantuko diskoa post-punkaren kutxan sartu du hainbatek.

Surfusion

Los Galerna
Mauka Musikagintze eta...



Arrasatekoen bigarren lanean garage eta latin doinuek bat egiten dute surf estiloaren olatuetan kulunkatuz. Pantano Records, Mondra Underground Sound eta Mauka Musikagintza diskoetxe edo zigiluak parte hartu dute boskoteak biniloan eta CD formatuan kaleratu duen azken lan honetan.

Guatque

Ciclos Iturgaiz
Autoekoizpena



Bizkaiko talde anonimoak bigarren lana plazaratu barri du. Diotenez, "umore garritaren, kritika suntsitzailearen eta probokazio hutsaren" mugean techno-dantzari dihardute. Euskal Herriko zein Espainiar estatutako gaiak, pertsonaia eta kontuak dauzkate euren letren ikusmiran. Diskoa entzun/jaisteko: www.myspace.com/ciclositurgaiz



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Literatura-lehiaketak

Lauaxeta eta Aresti literatura-lehiaketetan lanak aurkezteko epeak **urrian** itxiko dira


Lauaxeta eta Gabriel Aresti, hurrenez hurren, olerki eta ipuin lehiaketetan parte hartzeko epeak urrian amaituko dira.

Batetik, hilaren 9a izango da Mungiako Udalak antolatzen duen Lauaxeta Olerki Lehiaketako seigarren ekitaldian parte hartu gura duenak bere lana aurkezteko daukan epemuga. Olerkiek euskarazkoak izan beharko dute eta gitxienez 100 eta gehienez 200 bertso-lerrokoak. Gaia fusilatu zuten poetaren poema eza-gun baten izenburuan oinarrituko da, "Amayur gaztelu baltza", hain zuzen ere; lan danek eroan beharko dute izenburu hori eta edukia horren interpretazio librea izango da. Sari bi banatuko dituzte: lehenengoari 800 euro eta bigarrenari 500 euro. Gainerakoan, lehiaketaren oinarriak

«Olerki eta ipuin lehiaketak Laukizko eta Bilboko idazleen omenez»

Mungiako Udalaren webgunean kontsulta daitezke.

Bestetik, Gabriel Aresti Ipuin-Lehiaketaren XXX. ekitaldian lanak aurkezteko epemuga urriaren 26a izango da. Bilboko Udalak antolatzen duen sariketara, euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako lanak bidal daitezke Bilboko Udaleko Kultura



Gabriel Aresti

eta Hezkuntza Sailera. Ipuinetarako gaia libre da, eta luzeran "gehienez, *DINA-4* motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita". Atal bakoitzean (euskara / gaztelania) lehenengo saria eta akzesita banatuko dituzte, 3.500 euro eta 1.750 euro, hurrenez hurren. Gainontzeko oinarriak eta bestelako informazioa Bilboko Udaleko web orrialdean irakur ditzakezu.

Ohi dan legez, batera zein bestera, aurkezten diren lanek inoiz argitaratu bakoak izan behar dute. ○

Info+: www.mungia.org
www.bilbao.net

liburuak



Piztiaren begiak

Alberto Ladrón Arana
Elkar

Batetik, kartzelan urteak pasatu eta gero, iraganeko zorrak garbitu nahi dituen gizasemea; negozio ilunak tarteko postutik baztertu zuten eta bere bizkarra zaindu behar duen polizia, bestetik. Erdian, nora ezean dabilen familia bako koitadua... Misteriozko eleberria.



Inuiten mila zuriak

Isabel Minhós
OOO eta Txalaparta

Madalena Matoso ilustratzailearen irudiak ditu Arkaitz Goikoetxeak itzuli duen idazle lisboarraren lanak. Ume inuit batek bere bizilekutik, mundua ikusten lagunduko digu, bere begien bidez; harrituko gaitu: inuitek, izan ere, mila zuri bereizten dituzte...

[kirola]

Galapan **laru gorritan**

Irailaren azkeneko zapatuan egingo da Sopelako **Lasterketa Nudista**, Patxi Ros saria



Egunean bertan ere izena emon ahalko da

Emoten zuen aurten bertan behera lotu zitekeela, baina azkenean, Sopelako Lasterketa Nudista-Patxi Ros sarirako hitzordua irailaren 29rako ipini dute, goizeko 11:00etan, ohi legez, Barinatxe hondartzan; marea behean dagoenean, eta hondarra gogor dagoen aldetik.

Barinatxeko alde sopoloztarretik hasiko da lasterketa, alde getxoztarreraino joan eta bueltaka, 5.000 metroko ibilbidea bete beharko dute partehartzaileek; umeei begirako ibilbideak, ostera, 2,5 km izango du. Norgehiagoka hurrengo sei ataletan banatuko da: emakumezkoena, gizonezkoena, beterano (40 urtetik gorakoak) gizonezkoena eta emakumezkoena, neskak (14 urtera arte) eta mutilak (14 urtetik beherakoak); horiez gainera, bazkide diren nudistei zuzendutako beste atal berezi bi egongo dira.

Aurretiaz izena emoteko webguneren bat (oraindik zehazteke) erabiliko dute, osterantzean, egunean bertan hondartzan horretarako aukera egongo da. Ohi den legez, partehartzea doan izango da.

Sopelako XIII. Lasterketa Nudistaren lehenengo ekitaldia 1999an antolatu zuen Patxi Ros bilbotarrak, gogoko dituen zaleztasun bi, kirola eta naturismoa, buztartuz. Gero, Euskal Naturista Elkarteak (ENE) hartu zuen lasterketa prestatzeko eginbeharra. Baina, aurten, ENEkoek arazoren bat izan ei dutela eta, Sopela aldean asko-

**«Hitzordua: goizeko
11:00etan,
Barinatxe hondartzan»**

tan ibiltzen den Rosek hartu du barriro ere proba antolatzeko ardura; horretarako, Barinatxe Athletico-Nudista Klubaren laguntza izango du. Elkarte jaio barria dela jakinarazi digu Rosek, kirola eta naturismoa batzen dituzten ekimenak antolatzea helburu izango duena.

Aurtengo berandu ei da, baina Rosek iragarri duenez, hurrengoan ustekaberen bat egon liteke, *“kontu polit bat prestatzen ahaileginduko gara: bestelako lehiaketaren bat edo, luzera-saltoa, pisu-jaurtiketa... agian pentatlon antzekoren bat...”*. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82**

ETXEXO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Mikel Clemente > *Kotoizko maitaleak* 3D-tako film laburraren egilea

“Lan gehiago eragiten dizunak gehiago gozarazten dizu”

Hiru dimentsioko lehen euskal film laburra zuzendu du Mikel Clemente uribekostarrak: *Kotoizko maitaleak*. Ekainean izan zen aurre-estreinaldia eta, uztailean, Urdulizko Basartena film laburren jaialdian erakutsi zuten, lehiaketaz kanpo. Film honegaz, eremu barri batean murgildu da zinemagilea.

—*Kotoizko maitaleak*, zer kontatzen du filmak?


—Kulero eta galtzontzilo baten arteko maitasun istorioa da. Mutua da, baina ahotsak entzuten dira, barbarako, Koska irratia; omenalditxo da. Eta metaforak erabiltzen ditugu; promoziorako esakerak dio: “*Haizea aurka datorrenean, maitasunak bere indarra erakutsi behar du*”. Eta horixe da istorioaren oinarria: maitasuna, maitasun eza eta barriro elkartzea; bizi-tzaren bueltak. Gainera, oso uribekostarra da: Berangon grabatua, Koska entzuten da eta kuleroa zein galtzontziloa Berangoko Eroskin erosita daude.

—**Nolatan 3D teknika erabili?**

—Alphax lagunak sortutako kamera probatzeko. Hurrengo urratsa da pertsonakaz probatzea: Gose-ren bideoklipa egingo dugu Durangoko Azokarako. Gainera, adinean aurrera, barritasunak onak dira eta azken aldian film asko ikusi dut 3D-tan. Oso gustuko dut teknologia barrien emaitza, izan ere, aspaldi dago 3D formatua, baina teknologia barriek lortu dute benetan funtzionatzea.

—**Zailagoa da 3D-ko filma mugitzea?**

—Zailagoa da zinemetan mugitzeko baina, era berean, merkatua ere saiakuntzak egiten ari da eremu barrietan. Duela hamarkada batzuk hedatzeko modu gitxi



Info+: www.alphax.es/cottonlovers.html

zegoen; gaur egun, barriz, kontrakoa gertatzen da: hamaika plataforma dago lana erakusteko. Baina azkenean, hainbeste bideo eta gauza dago, betekada handia dagoela. Tontakeria batek milaka bisita dauka interneten, baina zer edo zer desberdina egin eta oso bisita gitxi daukazu; eta nik gustukoago dut hori: nahiago

mm-tan grabatzen genuen garaia oroitarazi dit: gauzak hobeto neurtu behar dira, entseatu... kontuz ibili eta gehiago zaindu behar da lana. Gehiago motibatzen nau; izan ere, egun, irudiak hartu eta hartu gabiltza eta asebeteta gaude. Teknika honegaz desberdina da, istorio sinple bat hartu eta dedikazio handiagaz

“Gose musika taldearen hurrengo bideoklipa egingo dugu hiru dimentsiotan, abenduko Durangoko Azokarako”

dut lagun gitxi izan, baina benetan onak. Hau da, nire lana ikusi gura duenak bilatzen ardura hartzea, benetan estimatzen baitu egindako lana. Beraz, ez dit ardura ikusteko zailagoa izatea.

—**Asko ikasi duzu?**

—Asko. Teknika aldetik zailagoa da, bi kamera erabili behar direlako, baina 16

egin dugulako. Lan handiagoa eragiten dizunak, gehiago gozarazten dizu. Bitxia da, baina nagusiei gustatu zaie gehien istorioa. Gazteek mugimendu gehiago espero dute, 3D filmak horrelakoak direlako, baina gure istorioa pausatua da, guztiz kontrakoa: eremu sakonera erabiltzeari emon diogu garrantzia. ○



Atxutegi kalea 6, behea (ASTRABUDUA)
Desanexio kalea 4, 3.a (ALTZAGA)

944 676 075
erandio.eusk@euskalnet.net

Nik  **maite
dut**
euskara



Titulu ofizialak • Títulos oficiales
Internet bidezko irakaskuntza • Enseñanza por internet
Maila eta ordutegi guztiak • Todos los horario y niveles

HADEk diruz lagundua

CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA

Matrikula zabalik • Matrícula abierta

Irailaren 3tik 19ra • del 3 al 19 de septiembre

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA JATETXEA

C/ Alangobarrri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80




JAN-TOKI OMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO

Oilasko orreak, indabak, txuletoia, arraina txingarrak
Menu bereziak enkarnez - Gabonetako Menu bereziak
Pello asado, txuletonak, alubias, pescados a la brasa. Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Berango

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Pesto saltsa eta gazta

zapore bizia eta sendoa, gozo-gozoa



Pesto saltsa gustuko duenarentzako gutizia

Zapore barriak ekarri gura dituzte gure tabernako sukaldariak, ikasturtea hasteagaz batera: eskaintza zabaldu guran pintxo barriak egiten hasi dira, eta gure orriotara ere iritsi da jakien lurrin gozoa. Lehen izan da pesto saltsarena.

Pintxo epela da gaurkoa, sinplea eta egiteko erraza, baina benetan zaporetsua eta gozoa. Osagaiak ere edozein denda-tan topatzeko modukoak: ogia, alberjina, tomate, parmesano eta mozzarella gaztak, eta pesto saltsa.

Lehenik eta behin, ogi xerra bat txigortu beharra dago, haren gainean muntatuko baititugu gainontzeko jakiak: hasteko, aurretik arrautzeztatutako alberjina xafla eta, ondoren, tomate xafla bat; hartara, tomatearen freskura

eta ogiaren zein alberjiniaren beroa bate-ratuko dira, elkarri eraginez. Jarraian, mozzarella gazta xerra bat ipiniko dugu tomate freskoaren gainean.

Eta orain dator ukitu berezia: pesto saltsa lerro bat luze, mozzarella xerraren alde batetik bestera. Azkenik, parmesano gazta apur bat ipiniko dugu. Baina hori ez da guztia. Pintxo biribiltzeko labean sartuko dugu apur batean, tomate egin eta gazta urtu dadin. Eta listo, pintxo prest dago!

Aipatu beharra dago alberjina beste-lako jakiakaz ordezkatu daitekeela, berba-rako, kalabazinagaz. Horrela, kutsu des-berdina emongo diozu pintxoari.

Osagaiak: ogia, alberjina, tomate freskoa, mozzarella, parmesano gazta, pesto saltsa.

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
TF. 94 491 02 93



TXIBERRI

edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15





prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Nagunko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Itzuli zara behingoz! Azkenean topatu dituzu giltzak. Ate bat itxi duzu, baina badakizu horrelakoetan leiho bat zabaldu ohi dela: orain ikastera, aupa zu!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ikasturte barria, hori madarikazioa! Oporrek uztailetik abendura iraun beharko lukete, urte barria sasoi hasteko; baina ezin! Hartu indar eta aurrera, ikasteko asko daukazu-eta!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Eguzki bedekintua! Ikasturte barria hasi arren utzi digu beste apur batean gozatzeko. Hemendik aurrera, ordea, giroa aldatuko da. Atera itzazu praka luzeak, haize petrala dator-eta.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Udako jaiak amaitu dira eta triste egi zabiltza. Zergatik, bada? Oraindino badago zer ospatu: non gogoa, han festa! Edozein tokitan egin daiteke parranda...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lan, lan eta lan; besterik ez duzu egin iraila hasi zenetik: indarrez ekin diozu aurten lanari oporren ostean, zu bai gogotsua! Ea ingurukoak kutsatzen dituzun, beharra dute-eta!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hainbeste denbora ostean azkenean deitu dizute lan egiteko: egun bateko ordezkapena. Lastima! Greba egunerako gura zaituzte, eta zuk asmorik ez eskirolarena egiteko.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ederra egin zenuen asteburuan eta goxo daukazu gurasoak! Lasaitzea gura baduzu hobe duzu azterketa guztiak gainditzea: lasai, ikasteko tartea izango duzu zigorraldian.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Denboraldi merkea baliatu eta bidaia erromantikoa egiteko asmoa daukazu datozen asteotan; nogaz, baina? Horrelako eskaintzarik topatuko duzu: bidaia eta bidaia-laguna?

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Amama-aititerengana joango zara asteburuan eta ederto baten ibiliko zara: gurari guztiak ilobarentzat. Zeuk ere egiezu detailexoren bat. Besarkadak eta musuak ere eskertuko dituzte.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lagunek pozarren zoriundu zaituzte, baina zu, zu beti bezain garratz. Har egizu azukrezko opil gozoren bat, ea aldartea ezitzen zaizun, bestela zugaz aspertuko dira...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Ez datokizu aste gogorrak, lanez gaineza ibiliko zara, zorionekoa askorentzat! Badakizu, eguraldi petralari aurpegi on! Haize freskoak lagunduko dizu aldapa igotzen.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Penagaz lotu zinen ekainean, Ikastolen festak amaituta. Dagoeneko irrifar egin dezakezu, bertan dira-eta Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Zenbat urrats emongo duzu euskararen alde?

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena





UK/51

Soluzioen anagramak dira hitz gurutzatu taula honetako definizioak. Berbak asmatu ostean, behar bezala ordena itzazu taula osatu arte.



EZKER ESKUIN

1 SANTO
4 ORKOA
7 OXU
8 LEI
9 UNA
10 GIRE
11 ZUNTA
14 HASTA
16 OKKA
18 IAT
20 ARI
21 ETA
22 LAKOA
23 ZEKAN

GOITIK BEHERA

1 BUSO
2 XORTORA
3 GIRAI
4 MARKE
5 NOR
6 URABUA
12 KATEKAT
13 KALFAT
15 LISOA
16 BAKAR
17 NIAN
19 XAI

Zein urtaro bizi dugu?

- Uda
- Uda eta udagoiena bitartea
- Udagoiena

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12


lagusana

SARIA

> Aurrekoaren erantzuna: Garagarrila eta agorrila

> Irabazlea: **Ibai Agudo***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal barri honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



> Aurrekoaren erantzuna: Goierri Sokatira Taldeak

> Irabazlea: **Julian Nabarrete***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37



EDU RODRIGUEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTA BERMEON TXAPELDUN, 1984-09-09

Santa Eufemia jaiak (irailak 16) direla-eta, bai orduan, bai orain, "Bermeoko Uria Bandera" traineru estropada izaten da; aurtengoa XXX.a izan da, irailaren 15ean. 1984koa, aurreko igandean, irailaren 9an, jokatu zen eguerdiko hamabietan: hor ditugu irabazleak, arraunak tente, Bermeoko arrainontziak ondoan dituztela, oso ondo lerrokatuta herriko jaiak direlako; 19.19.03ko denboraz eskuratu zuten Bandera, Portugalete eta Zierbena ondoren sailkatuz. Parrandan ibili ziren gure arraunlariak, oso logikoa denez, baina gabaz autobusez etxera eta hori bai, hurrengo egunean berriro entrenatzera. Hori duk sasoia! ○

Brankaria: Edu Rodriguez (entrenatzailea)

Istriborrean: Jon Trujillo "Pipe", J. Miguel Gonzalo "Misu", Jabier M. Gorostiza "Goros", J. A. Martinez de Goñi "Goñi", Ramon Urrutia, Felix Rodriguez

Ababorrean: J. Manuel Fernandez "Txino", Dioni Campos, Iñigo Agirre "Agirron", Txomin Fernandez, Miguel Madariaga "Alexanko", Jon Etxebarria "Zakilixut"

Patroia: Iñigo Diaz Paternain (G.B.)

ZURIÑE HIDALGO > abeslaria

“Beti musikaren munduan ibiliko nintzateke, kantuan ez bada dantzan”

Testua: **I. Sagarminaga**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Bitan bakarrik? Hiru botako ditut: hiztuna, alaia eta burugogorra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez zait okurritzen... baina gaiztoarena egin gura nuke! Kar-kar!

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Beti musikaren munduan ibiliko nintzateke, eta kantua ez bada, dantzan arituko nintzateke. Urte dexente eman ditut funky-a dantzatzan, eta horretan aritzea ere gustatuko litzaidake.

Zein da zure ametsetako bat?

Indonesiako irlatxo batera bidaiatzea, eginkizun, ardura eta sakelakorik gabe. Relax totala!!

Aitor dezakezun bizio bat.

Mimoak (laztanak).

Parrandarik politenak non? Zergatik?

Nire herrian, Zizurren, eta Gasteizen, jaio nintzen tokian. Parranda ona botatzeko, lagun onez inguraturik ibiltzea garratzitsua da, eta bi toki horietan, nire lagunik kuttunenak daude.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Bizkaiko kosta asko gustatzen zait, eta askotan ateralditxoak egiten ditut, paisaiatz zein hondartzaz gozatzeko.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Ezin dut faltsukeria zein gezurrarekin; bi hauekin odolak irakiten dit!!

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?


Ia egunero egiten dut bat edo beste, baina hurrengo egunetan egingo dudana erokeria handia aipatuko dizut: nire herriko jaietan, Gasteizera alde egin; kontzertua daukagulako eta ahotsa zaindu beharra dudalako. Hori bai erokeria, Zizurko jaietan ihes egitea! ○

LABURREAN— Ez da arraroa Zuriñe Hidakok musika barik ezin izango lukeela bizi aitortzea. Gasteizen (Araba) jaioa eta Zizur Nagusia (Nafarroa) bizileku eta herri duen Haur hezkuntzako irakasleak txikitatik du kantatzea gustuko: “11 urterekin lehen aldiz eszenatoki batera igo nintzen, eta ordutik hona han-hemenka ibili naiz gustatzen zaidan hau egiten”. 2010eko irailetik Euskal Herriko hamaika plazatan dabil Hesian taldeagaz 22 urteko abeslaria, baina oraindik ez dute Zizurren kontzerturik eskaini, “jada 2 urte daramatzat taldean eta oraindik ez dugu nire herrian jo. Gogo handia dut, eta bada garaia!”, jakinarazi digu. Gogoko dituen taldeei edo abeslariari buruz galdetuta, horra bere erantzuna: “Kashbad/Sorkun, Ken zazpi, Ekon... eta nire bizitzako zati bat osatu, osatzen eta osatuko duten bi taldeak: Jeimon Turk band eta Hesian”.

URRIAK 4 - AZAROAK 4

iparra galdu gabe!

V JORNADAS
SOBRE IPARRALDE



Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2012-13 Ikasturtea // 1. seihiilekoa

IKASTAROA:

HEZKUNTZA, EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA BERRESKURATU ETA SUSPERTZEKO OINARRIA

Irakaslea: Miren Dobaran

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

Urria	16, 23, 30
Azaroa	6, 13, 20, 27
Abendua	4, 11, 18

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa da eta oraindik ez dakigu zein den bere jatorria. Azkenengo urteotan lan handia egin da euskara sustatzeko eta modernizatzeko. Horri guztiari esker, umerik gehienak elebidunak dira eta euskara erabiltzen dute eskolan ikasteko.

Euskara gero eta jende gehiagok jakin arren, euskararen erabilera normalizatzeko lan handia egin behar da oraindik eta horretan dabilta buru belarri lanean erakunderik gehienak. Mundu globalizatu batean bizi garenez, euskararentzako aukera bat edo mehatxu bat izan daiteke?

Gure gizartea ondo baino hobeto egokitzen ari da egoera berri honetara eta herritarrek hizkuntza aniztasunaren aldeko apustu sendoa egin dute baina oinarri legez gure Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak eta gure kultura jartzen dute zalantzarik gabe.

Informazioa eta izen-ematea: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) - Tel.: 94 491 40 80



Getxo
bizi ezazu



Deustuko Unibertsitatea
Universidad de Deusto
Deusto



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu